



Sagastilerri

URRUZUENO literatur lehiaketa



2000



PROSA

IRAITZ AGIRRE

TXOMIN MADINA

AINITZE ETXANIZ

AMAIA PANIZO

DANIEL FERREIRO

USUA ARBELAITZ


ANE AZURMENDI

MAITANE MENDIKUTE


AINGERU SARRIUGARTE

CLAUDIA GONZALEZ

HAIZE MAIZTEGI


Katalagoa
Eibarko Hezkuntza Esparrua
943.20.27.43
20600 EIBAR

irakaskuntza ertainetako
URRUZUNO
literatur lehiaketa 2000
LAN SARITUEN BILDUMA



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2000

Urruzuno Literatur Lehiaketa (15.a 2000)

Irakaskuntza ertainetako Urruzuno Literatur Lehiaketa 2000 : lan sari-tuen bilduma. — 1. argit. — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2000

or. ; cm. — (Sagastiberri)

ISBN 84-457-1584-4

1. Euskal literatura-XX. mendea-Lehiaketak. I. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. II. Título

891.69"19"(064.3)

Argitaraldia:	1.a, 2000ko abuztua
Ale-kopurua:	2.600
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Internet:	www.euskadi.net
Azala:	Jesus Iturriza
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposizioa:	Ipar, S. Coop. Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbo
Inprimategia:	Grafo, S.A. Avda. Cervantes, 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)
ISBN:	84-457-1584-4
Lege-gordailua:	BI - 2.066-00

AURKIBIDEA

Hitzaurrea		7
Idaztea: irabazteaz eta galtzeaz haraindi. Josu Lartategi		11
Prosa: A maila		
Maite duen orok... ..	<i>Iraitz Agirre Aranguren</i>	19
Gorrotoaren mendekua	<i>Iraitz Agirre Aranguren</i>	27
Faroko zoroa	<i>Txomin Madina Milikua</i>	35
Ametsa egi	<i>Ainitze Etxaniz Iraola</i>	43
Luis XIII.ari, xake	<i>Amaia Panizo Saez de Maturana</i>	53
Maite Bengoetxea begira zegoen ..	<i>Daniel Ferreiro Villaluenga</i> ...	61
Prosa: B maila		
Helmugara iristea, hori da kontua ..	<i>Usua Arbelaitz Lekuona</i>	77
Zaharrak berri	<i>Ane Azurmendi Lasa</i>	83
Itsu zulora	<i>Maitane Mendikute Zulaika</i> ...	91
Sineskeriaren egutegia	<i>Aingeru Sarriugarte Lasarte</i> ..	99
Betiko maitasuna	<i>Claudia Gonzalez Montero</i> ...	107
Bizitza txuri beltzean	<i>Haize Maiztegi Landa</i>	119

Poesia: A maila

Agur Laztana	<i>Xabier Paia Ruiz</i>	131
Urtaroen Klandestinitatean, zu ...	<i>Gaizka Amondarain Ipiña</i>	137
Txori bati begira	<i>Amaia Martin Iriondo</i>	143
Garrasi mutuak	<i>Iratxe Esnaola Aldanondo</i>	149
Etenaren trilogia	<i>Unai Baztarrika Otegi</i>	157

Poesia: B maila

Koloreak, bizitzaren arima	<i>Irati Goikoetxea Asurabarrena</i>	167
Sentimentuetan galdurik	<i>Odei Arregi Izagirre</i>	177
Aingeruen negarra	<i>Odei Arregi Izagirre</i>	183
Noraezean	<i>Maite Uriarte Gil</i>	189
Etsipenezko negarra	<i>Oihan Zubizarreta Iribekanos</i>	197

Urruzunotarrak 1986-2000		205
---------------------------------------	--	-----

HITZAURREA

Urruzuno literatur lehiaketak hamabost urte bete ditu oraingoan. Lehiaketa jaiotzearekin batera jaiotako gazteak ditugu gaur idazle-kimuak. 1986 edo 1987ko lehen edizio haietan kimuak izandako hainbat gaur egungo idazle, kazetari, berriemaile, bertsolari ezagun ditugu zorronez.

Lehiaketaren inguruan gabiltzan helduok (irakasle, epaimahaiko, guraso, euskara teknikari...) urteroko poza hartzen dugu kimu berrien indarra eta osasuna dastatzean. Ziur gaude oraingo hauek orduko haiek bezala gure zahartzarorako idazle, berriemaile edo bertsolari izango ditugula edo agian gure ohe ondoko mediku euskalduna, edo ingeniadorea, edo banketxekoa, edo alkattea, edo azken batean, lumaz eta ahoz trebe diren herritarrak.

Basa landareetatik nekez sortzen dira, ordea, horrelako kimuak. Ondo landatuak, ureztatuak eta zainduak behar izaten ditugu gure artean loratuko badira. Hor bai, guraso eta irakasle: zuena da meritua eta bihoakizue gure zorionik zintzoena.

Baina goazen aurtengo datuetara. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Aurtengo epaimahaian literaturaz jantziak diren pertsona hauen kolaborazioa izan dugu:

Manu Lopez Gaseni
M^a Jose Olaziregi
Arantxa Urretabizkaia
Joxe Mari Satrustegi
Josu Lartategi

Parte-hartzeari dagokionez, 2000. urte honetan 390 lan jaso dira: A mailan 99 prosan eta 52 poesian; B mailan, berriz, 180 hitz lauz eta 59 olerkian.

Dakizuen bezala, lehiaketak dituen 20 sariak lau atal-letan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailatan: bosna sari atal bakoitzean. Aurtengoan, sari guztiak eman dira lau atal horietan. Bi sari irabazi dituztenak ere badira. Prosa arloko *zaharren* mailan, Arrasateko Iraitz Agirrek eta Poesia arloko *gaztetxoenen* mailan, Azkoitiko Odei Arregik bina sari irabazi dituzte. Bi sariak jaso ezin dituztenez, epaimahaiak, Prosa arloko *zaharren* mailan, aipamen gisa, seigarren sari bat ematea erabaki du. *Gaztetxoenen* kasuan berriz, aipatu arloan saritzekorik ez eta saria prosa arloan seigarren sailkatu denari ematea erabaki da, hau ere aipamen gisa. Lanak epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratu dira.

Hona irabazle bakoitzari dagokion saria:

- Irailean 10 egun inguruko bidaiaria Suiza aldera.
- Bidai poltsa norbere gastuetarako: 40.000 pezeta.
- Oroigarria. Iraileko sari-banaketan ematen zaie.
- Lanak *Sagastiberri* sailean argitaratzea.

Liburua eskola denetara eta parte hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Horrez gain, urtero bi ikastetxeri egiten zaie aipamen berezia: aurten Gasteizko Koldo Mitxelena institutuari eta Donostiako La Salle ikastetxeari. Aipamen horrek irabazleekin batera bidaian joateko eskubidea ematen dio ikastetxe horietako irakasle banari.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 2000ra bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberrako alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan eta zein orrialde-tan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu sari eta aipamen irabazleoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, epaimahaikoei eta, bereziki, ondoko aitzin solasa paratu duen Josu Lartategi.

Besterik ez. Kimu gazte hauek aurten eskaini digutena dastatzeko aukera dugu orain. Hurrengo loraldiaren zain gelditzen gara.

Euskara Zerbitzua

**IDAZTEA: IRABAZTEAZ ETA
GALTZEAZ HARAINDI**

Josu Lartategi

Zuoi, urruzunotarroi, idazteak begirune eta esker oneko ariketa behar du izan halabeharrez. Sentsazio huraxe da beste ezer baino lehen azpimarratu nahi dudana: esker ona, lehenik, irakurle bezala, zuon ipuin eta poemetan barrera hamaika amets, desio eta lurraldetara eramanez nauzuelako; begirunea, bigarrenik, epaimahaikide izan naizen partetik, benetan baitiotsuet zuen adin berbera zuteneko oraingo hainbat eta hainbat idazle ezagunek bezain ondo edo hobeto idazten duzuela. Animo-hitzak izan nahi dute nireek, beraz, idazten segi dezazuen.

Idazteaz ari naizelarik, jarduera horrek berekin dakartzan alderdi jakin batzuetara bideratu gura nituzke sarrera honetako urrats laburrak. Izan ere, idaztea, beste edozein jarduera artistiko bezala, fama eta izen onari lotua ikusi ohi dute askok. Neronek ere, lehentxoago, konparaketa agian arriskutsuegia egin dut idazle heldu ezagun zenbaitek zuon adin berbera zutenean idatziriko idazlanen eta oraingo zuon idazlanen artean. Hortaz, norbaitek, aita edo ama emozionatu batek adibidez, zera ondoriozta lezake, etorkizuneko idazle famatu baten lehenengo zantzu edo seinaleen aurrean gaudela. Eta kontu honetan, bizitzako gauza

gehienetan bezala, komeni da apaltasunez eta handiguratan jausi barik jokatzeari. Artista ona izateak ez dakar-eta fama-tua edo diruduna izatea, ez eta gazte hasteak ere geroko kontsagrazioa ziurtatu. Are gehiago, nire iritziz, zein idaztea zein gainerako jarduerak artistikoak fama eta gainbehera edo dirua eta diru-eza bezalako parametroetatik bereiztu beharko genituzke. Hasierako momentuan, behinik behin; izan ere, bere horretan hasi eta amaitzen den jarduerak da. Gugandik ateratzen dugun heinean bihur liteke sortu dugun hori aintzat hartutako artelana, munduratzen den heinean hartzen du balore gehiago edo gutxiago.

Baina, eta badakit honetan literatur teorizatzaile ugari ez datorrela bat, nire ustez bigarren plano horretara iragaitzea ez da nahitaezko urratsa, gure baitan sortu eta gure baitan ere gorde baitezakegu soil-soilik. Nire iritziz, azken finean, eta hortik dator aitzin solas honek hartu duen izenburua, idaztea irabazle eta galtzaileez haraindi dagoen zerbait da, lehenbiziko maila batean sortzailea bera baita abiapuntua eta helmuga. Zuek aukeratu duzuen bigarren maila batekoa izango litzateke: hots, munduratzea, urruzunotar bihurtu nahi izatea. Eta den-dena da zilegi, jakina, baita guztiz ongi-etorria ere. Nola ezagutuko genituen, osterantzean, zuon sorkuntza-lanak?

Gogora datozkit, gorago aipatu sonaren kontu honetan, gazte-gazterik nabarmendutako pertsona asko. Mozart musikariak, esate baterako, gazterik erdietsi zuen arrakasta, baita hil arte gorde ere. Orain izenik gogora ez badatorkit ere, egon ere egongo dira bereziki nabarmendu arren izarloka distiratsuak lez desagertu zirenak.

Badira ere oso berandu eta kasik zerotik hasten diren artista harrigarriak. Charles Bukowski idazle iparramerikarrak

49 urterekin erabaki zuen serioski idazten hastea, eta Isabel Allende txiletarrak 40 urterekin argitaratu zuen bere lehenengo nobela. Bestetik, bada gazterik hasi baina ospea oso berandu aitortzen zaionik ere: Jos, Saramago idazle portugaldarra da horren adibide oso ona, 75 urterekin Nobel saria eman eta harrezkero mundu guztian ezaguna egin zenean.

Fama postumoa ere aipatzekoa litzateke, hainbat pintoreren kasu mingarri baina esanguratsuek honakoa adierazten baitute: hots, egiten duzun horretan oso ona izan bazaitezke ere, bizirik aintzat hartu ez eta hilik bihur zintezkeela mito. Esan gabe doa hil osteko fama hau dela inork nahi ez duena.

Azkenik, ez ospe ez arrakasta ez aitormen ezta ezagupenik lortzen ez duten pertsona horiek guztiak aipatu beharko genituzke. Bizitza ederra, edo egokia, edo oso normala, edo agian ere tristea daramatenak, baina amankomunean zera dutenak: zaletasun bat. Helburu berezirik gabeko zaletasun bat. Beren bizitzaren zati den zaletasun apal bat. Zaletasun bat, finean, zeinek bere burua elikatzea beste helbururik izango ez duen. Gutako edonor izan liteke, eta zaletasunak ere nahi beste izan litezke. Zuek daukazuena ere bai: idaztea.

Komeni da, beraz, gure buruarekin zintzo jokatzeari, gure zaletasunen helburua beti ere plazerrera zuzentzea. Etorriko da ereindakoaren uzta, horixe baietz, sari baten, liburu baten edo bestelako ekintza soil, apal, isil eta pertsonalago baten itxuraz. Seguru nago zuon kasuan denetik izango duzuela, batzuek jauzi literarioa egin nahiko duzuen bitartean, bestetuek dibertitzeko edo helburu jakinik gabe idatziko duzuela. Hautaketa guztiak izango dira onak, zuok zeuok egiten badituzue.

Izan ere, idaztearen kontu honetan ez dago irabazlerik edo galtzailerik. Ez ezazue idaztea lehiaketa honetako emaitzekin nahas, zuek baitzarete, neska-mutilok, zuon lanen epaile bakarrak.

Animo... eta bizitzan barrena literatur bidaia ona egin dezazuela.

PROSA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

Maite duen orok...

Iraitz Agirre Aranguren
Almen ikastola
Eskoriatza

*“Nosotros nos forjamos las cadenas
que llevamos dentro”*

DICKENS

Leku berean, ospitaleko horma izoztuen artean nago berriro ere. Ez da ezer aldatu hemen izan nintzen azken alditik; guztia baldosa zuriek estaltzen dute, herioaren bidea nabarmentzeko asmoz edo. Betiko erizainek, betiko gupida aurpegiaz begiratzen didate, hau guztia merezi izateko zer egín ote dudan pentsatzen bezala. Nahiago dut beraien begirada baztertu, gupidarik ez baitut behar. Hemen zenbat aldiz egon naizen ez nuke pentsatu nahiko, baina ezer esaten ez den isiltasun honek horretara bultzatzen nau.

Nire txikia hemen izan nuen orain hamasei urte, ene bizitzako egunik zoriontsuena hemen igaro nuela esatea nekeza zaidan arren. Maiatzeko arratsalde euritsu hartan jaio zen ene Kristina, eta oraindik buru txikitik odol beroa labaintzen zitziola izan nuen aurreneko aldiz eskuetan. Inoiz aurretik ikusitako haurrik ederrena iruditu zitzaidan, begi ertsi eta buru iletsuarekin. Dena ongi joan zela esan zidaten medikuek, ez zegoela haurdunaldi luzean hainbes-

te buruhauste eragin zigun haurraz kezkatzeko arrazoirik. Bederatzi hilabete ondoren, azkenik ama nintzen.

Ospitaleko logelan sartu nintzenean, erditu eta hiru ordutara gutxi gora-behera, han zirenen aurpegi ilunek beldurtarazi egin ninduten. Inork ez zidan begietara so egiten, guztiek baldosa zurietan galtzen baitzuten begirada. Zer gertatzen zen galdetu nuen behin eta berriz, baina nire galderak ene gurasoen negarra eragin zuen. Zirujaua logelan sartu eta bertan zirenak joateko eskaera egin zuen; guztiek egin zuten agindutakoa. Senarra eta biok besterik ez ginen logelan gelditu, eskuak indarrez oratu eta besarkatuz. Medikiak geldo eta poliki esan zituen hainbeste gorrotatuko genituen hitzak. Gure txikiak, jaio eta ordubetera, buruan atake bat jasan omen zuen eta, betiko, sendaezina zen gaisotasun bat pairatu beharko. Ez omen zuen inoiz hitz egiteko gaitasunik izango, ez eta bere kabuz ibiltzeko ere. Nik negarrari ekin nion; ezin zitekeen egia izan.

Urteen joanarekin dena poliki errutina bilakatu zen. Gauean alaba txikiaren garrasiek esnarazten gintuzten, eta mesanotxean gordetzen nituen hamaika pilula kaxetatik bat hartu eta ematera ohitu ginen. Gaueroko beharra zen hura, gure txikiak gehiago ere merezi zuen eta.

Kristina txikia bere gurditxoan pasiatzen genuen baikoitzean, bizilagunak gerturatu eta gertatzen zenaz konturatzeko txikiegia zen haurrari so geratzen ziren, munstro bat izanen balitz bezala. Gauero negar egiten nuen argia amatatzen zenean, eta masaila negar malko izoztuez bustita nuela esnatzen nintzen goizean.

Hiru urte zituela ingresatu genuen aurrenekoz Kristina, denbora luzerako. Gaisotasunak kolpe gogor bat jasan

omen zuen; denborarekin okertzen den kaltea baitu alabak buruan. Lehenengo aldi hartan medikuek esperantza urri-rik ere ez zegoela esan ziguten, ziurrenik denbora laburrean utziko gintuela. Bi hilabete eman zituen ospitaleko ohean etzanda, itxuraz bueltarik ez zuen koma baten ondorioz. Gogoan dut oraindik, gaur bezala logela triste hauetako batean nintzela, oheari so eta Jainkoari otoi eginenez, Kristina txikiak orroe egin zuenean. Izan zitekeen emakumerik zoriontsuena sentitu nintzen berriro ere ene alabaren eskuek besarkatu nindutenean.

Senarrari deitu nion haurra heriotz arriskutik at zelako berri emateko. Telefonoa hartu eta gertatutakoaz mintzatu nintzaionean, ez zuen deus esan, isiltasuna nagusitu zen telefono harian.

– Ez al duk ezer esateko? –egin nion itauna.

– Ez dakit zer esan –erantzun zidan, hotz, senarrak.

– Kristina ez dela hilko esan eta hori erantzuten al duk –negarrari ekin nion. Ezin nezakeen sinistu; bere aitak ere hilik ikusi nahi al zuen, bada, gure txikia? Ez al zuen maite biok sortu eta hezitako alaba? Gure alaba maitea ez? Telefonoa indar eta gorrotoz eskegi nuen. Inoiz izan den gizonik mespretxagarriena iruditu zitzaidan hainbeste maite izandako senarra. Ez zen ordea gure Kristina hilik ikusi nahi zuen bakarra: ene gurasoak, lagunak, neba-arrebak, bizilagunak..., mundu guztiak hilda ikusi nahi zuen ene txikia.

Urte luze baten joanean guztia aldatu zen. Etxean ez zegoen girorik, sesio eta istiluak besterik ez. Kristinak negar egiten zuen senarrak eta nik eztabaidatzen genuen bakoitzean, guztia gizon alu haren errua zela jakinik. Izenez deitzerik ere merezi ez duen gizon hark psikologo baten

beharra nuela esaten zidan behin eta berriz, obsesionatuta nengoela. Itxuraz, guztiek maitatzen zuten Kristina txikia, nik kontrakoa sinisten banuen ere. Ez zen, ordea, nik sinisten nuena, errealitatea baizik. Alaba zaindu eta maitatzen zuen bakarra ni nintzen; egunero oheratzean ipuinak kontatzen nizkiona; laztandu eta maite nuela xurxurlatzen niona; oraindik ospitalean oheari so egoten dena.

Denborarekin banandu egin ginen senarra eta biok. Nazkaturik nengoen gupida begiradez eta maitasun ezaz eta tamalgarri irizten nion aita zoragarriaren fartsari. Arrotz nituen bere laztan eta musuak gau ilunetan, sexuaren ordainarekin alabaren maitasuna salduko nuen esperoan. Hau guztia leporatzen nion bakoitzean, zoratzen hasia nintzela esaten zidan. Abokatu batekin lanean hasi bezain laster, nolabait, alaba ikustea debekatu nion senarrari.

Urteak iragan ziren eta Kristina txikiak bizpahiru atake gogor izan zituen. Hilabete luzeak eman nituen ospitaleko besaulki deserosoetan zain, orain bezalaxe, horma zurien artean mugitzen ez den oheari so. Noizbehinka gure txikiak ahaztua zen senarrak «legez aurkako» bisitaldiak egingen zizkion maindire izoztuetan lo zen alabari. Beti aurkako esaten zidan berak, nik bezala eskubide berdina zuela Kristina ikusteko. Alaba maite ez duenak zein eskubide du berau ikusteko? Bat ere ez. Neguko goiz batean ikusi nuen ospitalean sartzen, lore sorta eder bat eskuetan. Ene odola irakiten zegoen gorrotoaren gorrotoz, beraz, aulki bat hartu eta jaurti egin nion. Esku bat besterik ez nion hautsi, baina berak salaketa bat jarri zuen nire aurka, arazo psikologikoak nituela argudiatuz. Mila eta bat azterketa egin zizkidaten senar aluaren salaketa frogatzeko. Epaileak hemendik urrun den ospitale psikiatriko batera bidali ninduen, bertan denbora luzea eman beharko nuela esanaz.

Lasai egon maitea, ni hemen nauzu. Ez da munduan ospitale psikiatrikorik, ez eta bazter izkaturik, zurekin egotea debekatuko didanik. Zuk ongi dakizu mundu honetan maite zaituen bakarra zure ama dela, beraz ni neu. Urruneko ospitale hartako erizain bati bere txabusina kendu eta ihes egin dut, dena zu ikusteko. Epaileak debekatu egin dit zuzana gerturatzea, baina ezin dut, ene txikia. Zer naiz, bada, ni zu gabe? Hainbeste hari eta kableren artean ikusten zaitut, hain babesgabe eta bakarrik. Nik zu behar zaitut, eta zuk ni behar nauzu, eta nahi izanda ere, ezin batera egon.

Horregatik, erizaindegian sartu eta droga hilgarri hau lapurtu dut, biok betiko batera egon gaitezen. Zure kasuan errazagoa da; makina horretara lotzen zaituen kablea moztu besterik ez dut egin behar. Nik bi ttantta irentsiko ditut, eta, azkenik, bion eskuak bateraturik, eternitatearen paradisura egingo dugu ihes, biok bakarrik.

Gutaz gupida zirenak damutu eginen dira; senar, guraso eta lagunak gugatik negar eginen dute; epaileak Jainkoari otoi eginen dio bere hipokresiagatik. Gu ordea, azkenik, libre izanen gara.

Dagoeneko, makina zaharraren kristalezko pantailan marra zuzen berde bat luzatzen ari da eta, garrasika lez, soinu mingarri bat egiten du. Bi ttanttak poliki, ene erraieran barna doaz heriotzera. Indarrez oratu maitea, bagoaz eta guztiek hilik nahi gaituzten paradisura. Gero arte, ene txikia...

Gorrotoaren mendekua

Iraitz Agirre Aranguren
Almen ikastola
Eskoriatza

“Bihar bizirik jeikiko gara?
Zaila da bizitza bizitzea.”

J. SARRIONANDIA

Eguzki erdoilduaren izpiak gordeak dira, dagoeneko, urruneko paisaietan Ilunabarra bere osotasunean nagusitu da inguru guztian, eta eternitate bat lehenago hildako izarren argiaren azken hatsek zerua estaltzen dute. Portu aldean nekaezin aritutako kaiok hondartz aldeetan handitzen diren mendietako kirkilei utzi diete lekua. Hego-haizeak egunez laztandutako hondarrak epel jarraitzen du oraindik, nahiz gauak dagoeneko esklabu egin duen bere edertasunean. Urrunean portuko faroak itsas inguru guztia argitzen du, berandu baina iristen diren itsasuntziei harrera eginez. Ilargi betea nagusitu da, dagoeneko, zeruan.

Olatuek egunez *maremagnun* izandako hondartzaren aurka egiten dute gogor. Uraren hots gozoa besterik ez da entzuten gauaren bakardadean, karramarroak itsasotik at irtetera bultzatzen dituen soinua. Oinutsik mila eta bi aldiz zeharkatu du emakumeak hondartza; alde batetik bestera, izkina batetik hurrengora, horrela hondartza guztia bere pausuz margotu

arte. Aldean duen poltsa berdetik panpin bat atera du ondoren, eta beroni begira gelditu. Irriparre maltzur baten irudia aurpegian, hondar gainean eseri da, bere begirada portzelanazko panpin zurbiletik aldendu gabe. Olatuen azken indarra galtzen den lekuan jarri ditu oinak emakume gazteak, uraren epeltasunaren laztanen gozotasuna sentitu nahian bezala.

Neskak panpinari artez begiratzen dio, inoiz lehenago sentitutako ziurtasuna emanen balio lez. Panpinaren aurpegi zurbilean nahita galdutako begiradak ez die so dituen bi begiei erreparu egiten, sortu zuenak, bere helburuz, izen gabeko zer bat egin baitzuen. Panpinaren masail gorrixketatik, marrazturiko malko urdin bat labaintzen da benetako bailetzan. Soineko loredun bat darama soinean, nahiz loreak baino koloreak soilki bereiz daitezkeen. Lastozko txapel ttipi bat darama buruan, aldeetara inguratuz begizta gorriak erortzen direlarik Honen azpian, ile kizkur xerlo batzuk nabari dira, zaindutako kizkur ederrak. Neskak leunkirotaz laztantzen du, apurtu eta panpinaren aurpegi perfektua zarpailduko ez duen geldotasunarekin.

“Oso polita haiz, ba al dakin? Bai, noski, nola ez dun ba jakingo? Azal leun eta gozo horrekin, begirada sarkor eder horrekin..., inoiz ikusi dudan aurpegi politena daukan. Nik ere halakoa izan nahi ninan, baina patuaren zoritxarrez ez naun hi bezalakoa, ni besterik ez naun. Hain berdina izaki, beti batera ibilirik, guztiz desberdina izan gaitun beti. Eta hitz ematen dinat ez dela inoiz hori izan ene desioa. Nik hi bezalakoxea izan nahi ninan, eta hori ere ez dun inoiz gauzatu. Gorroto haut horregatik, biziki gorroto, gainera.

Oroitzen al haiz umeak ginenean? Ziur aski ez haiz oroituko. Nahi badun nik piztuko dinat hire memoria.

Ene sekretu eta mirespen guztiak hirekin tartekatzen nitan, eta axolako balitzain lez irripar bat luzatzen hidan. Ederra zunan hire irriparra. Baina denbora gehiegi ez zunan igarotzen ene konfidentziak eskola kide guztiek jakin artean, ez horixe. Lagun onena omen nindunan, baina besteen iritzia jokoan egonik, laguna errez saltzen hunan hik. Orduan ni izatera itzultzen nindunan, hi bezalako sorgin baten bigarren jerarkia. Gorroto haut horregatik ere.

Iduripenean dinat hemen izan ginen azken aldia. Denbora gehiegi igaro dun egun hartatik, nahiz nire gogoetan ez izan hain aintzina. Baina horrela ditun gauzak.”

Urrunean azken argia luzatzen duen faroaren brintzek emakume gaztearen aurpegia argitu dute. Irripar maltzur bat marrazten da bere irudian, panpin txikia hatzekin laztantzen duen bitartean. Faroaren argia desagertzean, gauaren iluntasuna nagusitu da berriz ere. Neskak panpinaren txapela hartu eta begirada gordinarekin irudi imajinarioak sortu ditu beroni begira. Ezker eskuaz ahal bezain urrun bota du, nahiz olatuak nekatzen diren izkinara besterik iritsi ez den. Olatuek leunki estali dute txapela, eta denbora gutxira begizta gorriak soilik geratu dira hondar gainean ikusgai. Ilea laztantzeari ekin dio ondoren, nekagaitz berriro ere, bere erraietatik sortutako alaba balu lez.

“Hire ileak beti bezain eder jarraitzen din. Zaindu eta garbia. Nik ordea lastoa bezain latza dinat, badakin, azken urteotan nire bizileku izan den egoitzan ez zegoen ileapaindegirik. Zoragarria haiz. Hain ederra..., baina zimurrak ere hasi ditun hire aurpegi horretan sortzen. Urteak denontzat pasatzen omen ditun. Hire senarrak ho-

rrela ikusi ezkerro, zer esanen zinan higatik. Baina ez kezkatu, dagoeneko ez bai hau maite, edo ahaztu hau dagoeneko.

Oraindik maiteminduta jarraitzen al dun? Ez dinat hire senar inozo horregatik esaten, nola zunan; Joxe Mari, Martin, Karlos..., oroimenak huts egiten zidan. Hire azken maitaleagatik esaten dinat, hain maiteminduta hengan hartaz hain zuzen. Dibortzioa eskatzekotan egon hintzen, ez al haiz oroitzen? Jakina, hainbeste maitale faltsurengatik dibortziatu nahi hunan..., senar gizajoa, beti hain leloa izatea ere! Hik ez dun inoiz nik bezala maite izan, ordea. Beti pentsatu izan dinat, nik maite nuelako ezkondu hintzela berarekin. Ziur nagon. Ez dinat inoiz ahantziko ezagutu genuen aldia, dantzaleku madarikatu hartan. Hik nahi beste mutil hitunan inguruan, baina ez, nirekin hitz egiten zegoen mutila gustatu behar! Egun hartan bertan oheratu al hintzen berarekin, puta zahar hori? Ala niri ere atsegin zitzaidala esan artean itxaron hunan? Ez dun inoiz imajinatuko zenbat aldiz eraman nuen haizto imajinarioa poltsikoan, eta inor pasatzen ez zen izkina bat aurkitu ondoren, nire alkandora zuria hire odolarekin zikintzen nuela pentsatu. Amets gozoa zunan.”

Emakumeak panpinari poliki-poliki soinekoa kendu dio, trapuzko gorputza biluzik geratu delarik, ilargiaren eta faroaren itzalpean biluzik. Panpinaren aurpegiak gauaren bakar-dadean dizdiratu egiten du argi eskasaren pean. Emakumea altxatu egin da, bakean uzten ez duen erreuma mingarriak gorputz guztian zehar hozkirria sentiarazi ostean. Beldurrez utzi du panpina hondar gainean eta, bi eskuez lagundurik, soinean dituen jantziak erantzi ditu. Behin larru gorritan izaki, panpina bereganatu eta uretara egin du korrika. Faro-

aren argipean, urteen ondorioz zaharkitutako gorputz biluzia ikusten da, itsasertzetik at aldentzen. Emakumea pozik dagoela dirudi, garrasika, saltoka, algaraka.

Bost bat minutu beranduago irten da uretatik, gorputzetik mila errekatxo gazi labaintzen direlarik, gero hondar hezera erortzeko. Panpinaren trapuzko gorputzari, ordea, ur jario amaigabea dario eta orain ez du hasierako ile kizkur ederrik; portzelanazko panpin koitadu huts bat da orain. Hondartzaren eta gauaren konpainian, bakardade isilean, ibilean hasi da neska itsas-ertzetik. Inguruari begiratu dio. Beti panpinari so, hitz egiten hasi zaio berri ere, oraingoan, lehenago izan gabeko tonu menderakoiarekin.

*“Inoiz baino epelagoa zagon ura gaurkoan. Faroa-
ren argitasuna, ilargi betea, izarrak gauean dantzari,
olatuen joan-etorria..., zerbait ekartzen al din gogora
honek guztiak? Bai, ziur baietz. Nola ahaztuko hunan
ba? Oso oker egon ezean, egun hartan benetan gorroto
izan nindunan. Lasai egon, nire sentimenduak ere ez zi-
tunan bestelakoak gau hartan. Ur hauetan ezagutu hu-
nan gorrotoa eta indarra, beldurra eta ikara; hemen
ezagutu hunan heriotza. Baina sikiera ez hago kexatzeko
moduan, hire lagun onenaren eskuetan hil hintzen eta
beste inork ezin din horrelakorik aipa. Harro egon hadi
beste mundu horretan, harrokerian inork ez hau eta ira-
bazten. Gehien maite izandako pertsonak hil izana harro
egotekoa dun, bai horixe. Hain mingarria izan al zunan,
nire eskuak hire lepo inguruan indarra egiten eta ur az-
pian arnasa hartu ezin izana? Kontatu beharko didan
hori. Heriotz tristea izan zunan, baina ez didan ukatuko
herorrek bilatu hunala heriotza.*

Horrexegatik guztiagatik gorroto haut hainbeste. Gorroto haut hire erruz hainbeste denboran itzalpean egonagatik. Gorroto haut hire akats guztiak nik ordaindu behar izanagatik. Gorroto haut beti ni baino hobea izanagatik. Guztiagatik gorroto haut. Gorroto horregatik pasa ditinat hamar urte madarikatu zelda ilun batean, errugabea izaki. Nik, soilik, hainbeste urtean hik eskatutako eskarmen-tua eman ninan, beste guztia egiteaz, hi arduratu hintzen, eta gorroto haut horregatik. Gorroto...”

Emakumearen begietan sua da nabari, nazka eta mespretxua. Azken begirada zuzendu eta lurrera jaurti du, ahal beste indarrekin. Hondartza guztian den harri bakarrera eramane eta mila eta bat aldiz zapaldu eta jo du. Panpinaren aurpegia hamaika zatitan puskatu da. Mareak hondarretik portzelana zatiak eramane artean itxaron du emakumeak, hezetasunagatik izoztuta. Baina berdin dio. Itsasoan barneratu bezain pronto jantziak soinean jarri eta pauso geldoan, gauaren bakardadean zibilizazioa somatzen den herrira ihes egin du. Hankak hondarrez garbitu eta zigarro baten kea irentsiz, joan egin da. Hondartza gainean, panpinaren portzelana zati bat geratu da. Bertan negarrez ari den begia ikus daiteke, masailan bi malko labaintzen direlarik. Dagoeneko, hainbeste denboran zain izandako mendekua burutu du hondartzatik urruntzen den emakumeak. Orain zigarro baten kea irensten du, atzera begiratu gabe.

Faroko zoroa

Txomin Madina Milikua
ETEKO ikastetxea
Oñati

Ekaitz gaua zen hura, udazken gaueko ekaitz bortitza. Tximistek zeru iluna zeharkatzen zuten, mantu beltz batean jositako hari zatiak bailiran. Itsasoa ere ez zebilen batere lasai, olatuen arteko gerra zirudien hark: bata bestearen kontra, nork nori lekua kenduko. Noizean behin eztanda handiak entzuten ziren, zerua apurtuko zutela zirudien. Hala eta guztiz ere, bortizkeria hark guztiak ez zuen itsasoan barna tente zegoen faroa botako. Bere luzetasunean, sendoa zen eraikin hura, itsasazpitik jaiotzen zen mendia bailitzan.

Faroko argia piztua zegoen, azken 150 urtean gauero-gauero egon zen bezalatsu. Ez zen ekaitz hura izango mari-nelak gidari leialik gabe utziko zituen ezbeharrak; faroko argia zaintzen Antton Agirretxea zegoen bitartean behintzat. Anttonek izena ez ezik itsasargiaren kargua ere jaso zuen bere aitarengandik, honek berearengandik hartu zuen bezala.

Halere, gau hura ez zen beste edozein gau bezalakoa, ez ekaitzagatik, beste arrazoi sakon eta tristeago batengatik baizik. Eta Anttonek hori oso ondo zekien. Horregatik zeuzkan begiak bustiak, bihotza negarrez. Mende erdia beteko zen gau hartan, 50 urte luze bezain motzak, baina An-

ttonentzat bereziki, bakartiak. 50 urte lehenago joan baitzen Luisa, Anttonen emaztea. Joan baino gehiago, itsasoak eraman zuen, bizitzatan kobratzen baitzuen itsaso zitalak urtero ematen zituen arrainak. Farozainak begiak itsaso erdian pausatu zituen, gogoratzeak Luisa bueltatuko balio bezala.

Ai, Luisa, zein ederra zen! Bere aurpegi gozo hartan ez zegoen ezer lekuz kanpo, alderantziz, atal guztien pilaketa perfektuak edertzen zuen hainbeste, alturaz txikia baina gizatasunez erraldoia zen emakume hura. Begi berde haiek bi itsaso txiki ziruditen, itsaso garbi eta bareak, orduak eta orduak beraiei begira egon arren aspertzen ez zuten horietakoak. Sudur txikiak eta masail arrosa jasoek inozentzia puntu bat ematen zioten, sarritan ikusten uzten zuen irribarre bihurriak erakargarriagoa egiten zuelarik. Eta ahotsa, hura zen ahotsa hura! Xumea baina elegantea, erritmoz betea. Hitz egiten entzutea aingeruak abesten aditzea bezalakoa zen, belarrien gozagarri, bihotzaren pozgarri. Dotorezia eta fintasun hartan zeresan handia zuen hiriko andereñoentzako ikastetxe onenean (eta baita garestienez ere) ikasi izanak. Urrutitik ikusten zitzaion eskuei lan asko eman gabeko emakumea zela hura, jantzi dotore eta garestietan bildua, merkatari aberats baten alabari zegokion bezala.

Anttonek ez zuen inoiz ere ahaztuko ezagutu zuen eguna. Goiz eguzkitsua zen eta, asteguna izanik, portua jendez gainezka zegoen. Antton, bi astean behin egin ohi zuen bezala, herrira etorria zen, denboraldi baterako janarien eta gainerakoen bila. Kaiko tabernan zegoen, hainbat eta hainbat marinelekin batera hitzegiten eta garagardoa edaten, leiho zikinduetatik kanpora begiratu eta neskatxa eder bat ikusi zuenean. Momentu hartan, halabeharrak edo Jainkoaren nahiak bultzatuta, Luisak Antton zegoen lekura begiratu zuen. Eta bi begirada eder haiek elkartu zirenean sortu-

tako txinpartek infernuko garrak poxpolu xume baten pareko utzi zituzten. Batak besteari irribarre bero bat eskaini eta bakoitzak bereari jarraitu zion. Halere, elkarri zuzendutako begiradatxoak etengabeak izan ziren.

Handik aste pare batera, Antton berriz ere portura abiatu zen, buruan neska liluragarri hura aurkitzea beste helbururik ez zuela. Eta portura iristean ez zen gelditu Luisa topatu zuen arte. Uretara begira zegoen, bere edertasuna goratzen zuen soineko arrosa gainean zuela. Itsasotik zetorren aire lehorrak ile hori kixkurra nahasten zion, honek are politagoa egiten zuelarik. Zer esango zion asmatu ezinik, Antton pixkanaka-pixkanaka hurbildu egin zitzaion. Eta, halaxe, majia airean zabaldu izan balitz bezala, orduak eta orduak eman zituzten berbetan, bi astean behin, astero, egunero.

Hitz, fereka, begirada bakoitzarekin elkarrenganako maitasuna haziz joan zen, egunero-egunero ureztatzen eta zaintzen den larrosa bezalaxe. Bazekiten Luisaren aitak ez zuela begi onez ikusten bere alaba bakar eta kuttuna farozain xume baten emaztegaia izatea. Baina bi maitaleei berdin zitazien. Batak bestea zeukan bitartean gainerako mundua euli baten hegaldia bezain ezdeusa zen beraientzat.

Eta, horrela, bi urte t´erdi beranduago ospatu zuten beren ezkontza. Egun paregabea izan zen, inoiz bizi izan zuten edo biziko zuten ederrena; lagunak, familiartekoak, musika, dantza... Baina batez ere beraiek, Antton eta Luisa, Luisa eta Antton, benetako maitasunaren adibide garbi. Ezkon gau hartan bertan sortu zuten elkarrenganako adorazioaren lehen fruitua izango zena, faroan biziko zen bikotea hirukote bihurtuko zuena.

Baina badirudi betiko zoriontasuna amets lortuezina dela, inoiz ere eskuratuko ez dugun utopia, senar-emazte

haiei ere ukatua izan zitzaiena. Guztia, ezkondu eta zortzi hilabetera gertatu zen. Egun guztian zehar eguraldi epel eta nahiko udatiarra izan arren, arratsalde partetik aurrera zeru urdina laino beltzez estalia izan zen, hodeiek dena ilundu zuten. Bazekiten ekaitza ez zela oso urrun ibiliko, gau hartan bere presentzia ederki nabarituko zutela. Beraz, lehen trumoi hotsak entzutearekin batera gauzak prestatzen hasi ziren, gaua faroko azken solairuan emateko. Dagoeneko, itsasoa oso bortitz zebilen, eta Antton izan zen eskaileretan igotzen lehena, faroko argia lehenbailehen pizteko asmotan. Luisak atzetik jarraitu zion, baina askozaz ere polikiago, barruan zeraman haurtxoa gehiegi mugitu ez zedin. Eta, orduan, ezbeharra. Ezinezkoa bazirudien ere, olatuen izugarritzko indarrak faroko lehen pisuan zegoen burdinazko ate sendoa bota zuen eta, noski, itsasoko urek ez zuten denborarik galdu leku berria konkistatzeko orduan. Antton, gertatu zenaz jabetzeaz bat eskaileretan behera abiatu zen, bere emazte maitearen bila. Baina iristear zegoela, bapateko ur igoera batek biak urpean utzi zituen. Zailtasun handiekin bazen ere, Anttonek lortu zuen Luisarengana hurbiltzea, baina eskuak elkartzeko gutxi falta zitzaienean, ur zurrumbilo batek Luisa ate nagusitik kanpora bota zuen. Itsaso zabal sakonera. Hori gertatu aurretiko unean, beraien begiradak berriz elkargurutzatu ziren. Segundu hamarren hura nahikoa izan zen batak bestearen barrena ikusteko, sentimenduak, gogoetak. Eta biek berdina aurkitu zuten: maitasunez betetako bi bihotz.

Ekaitza baretu orduko, Anttonek eskaileretako bizpahiru maila igotzea lortu zuen. Ordu batzuk konorterik gabe eman ostean, bizien munduan jarraitzen zuela konturatu zen. Gertatu zenaz gogoratzean, hilik egotea nahiago izan zuen.

Luisaren gorpua ez zen sekula agertu, itsasoak irentsi zuela zirudien. Eta halaxe izatea desiratzen zuen Anttonek, bere emazte maitea itsas hondoko lamien erregina bezala imajinatzea, beraien seme kuttuna aldamenean zuela. Herrian era guztietako zurrumuruak zabaltzen joan ziren: Anttonek berak hil eta bota zuela Luisa uretara, horrela bere aitaren dirutza osoarekin geratu ahal izateko; Luisak senarra utzi eta betiko alde egin zuela, Kalkuta edo Buenos Airesera... Horrek guztiak gero eta gehiago urrundu zuten jendearengandik ordurako hain bakarrik sentitzen zen Antton, eta bere bizitzako gaineratiko egun guztiak faroan eta berak bakarrik emateko erabaki sendoa hartu zuen. Horrela, herritarren esames eta imajinazio mugagabeek Anttonen zorotasuna asmatu zuten, eta baita ezizen bat ere, gurasoek seme-alabei eta hauek euren umeei konstatuko zieten: Faroko zoroa.

Anttonek begiak lehortu zituen. Bai, akaso gau hartan izango zen. Akaso itsasoa gau hartan bertan etorriko zen bere bila, betiko, bere Luisa maitearen ondora eramateko.

Ametsa egi

Ainitze Etxaniz Iraola
Usabalgo Laskorain ikastola
Tolosa

Jada igaro dira egun batzuk amona nire altzotik alden-
du zen une hits hartatik; denboraren gezia noraezaren
iluntasunean murgildu zenetik. Halere, udazkeneko eu-
riak ene gelako leihoa bezala kolpatzen du bere gomutak
nire bihotza.

Milaka izan dira historian zehar Euskal Herritik Ame-
riketara joan diren euskaldunak, euren istorioak belaunal-
diz belaunaldi kontatu izan direlarik, baina gutxitan esan
ohi da emakumeak ere bazirela lanpostu, diru, abentura
edota etorkizun hobearen bila itsaso handia gurutzatu zu-
tenen artean; eta haietako bat izan zen ene amona.

Marie Laplace hemezortzi urte baino ez zituela abiatu zen
Ipar Aldetik Ameriketarantz. Ordurako lanean ibilia zen
Parisen eta bere amets eta helburu bakarra abeslaria izatea
zenez, aspaldidanik izan zuen Ameriketara joateko desioa,
“mundu berrian” asmo hura betetzeko erraztasun gehiago
izango zuelakoan. Baina hara iritsi zenean ulertu zuen bere
aitak bidaia hura aurrera atera zedin erakutsi zuen gogo bi-
ziaren zergatia; aitak beraren eta bere bizilagun izandako
Michel Echevarriaren arteko ezkontza hitzemana zuen ja-

danik eta Mariek ezin izan zion bere aitaren nahiari ezetza eman.

Michel Echevarria ene amona baino hamahiru urte zaharragoa zen eta Marieren maitasunaren jabe izateko itxaropenik ez izanagatik, hilabete gutxira burutu zen ezkontza eta ene amona bere senarraren rantxora joan zen bizitzera.

Egunak eta hilabeteak luze joan zitzaizkion Marieri, amodioa idealizaturik zuen neskatxa harentzat oso garra-tza baitzen maite ez zuen gizaseme batekin bizi beharra. Bere izaera irekia eta alai, uzkur eta goibel bilakatu zen; bizitza berri baten itxaropenean bidaia hartan murgildu zuen ametsa, aldiz, amesgaizto. Ez; ezin egin ziezaiokeen aurre bere aitaren nahiari, ezin zuen hainbeste maite zuen aita samindu. Bazekien ezingo zuela Michel inoiz maitatu eta ezintasun hura bere bizinahia lausotzera iritsi zen.

Ganbarara joan naiz amonaren kutxan miatzera, oroitzapenek baino ez baitute irauten hainbeste maite izandako pertsona betiko galtzean. Argazki laruak berrikusten ari nintzela denboraren poderioz zaharkitutako gutun bat aurkitu dut; ene bizitzan lehen aldiz ikusi dudana gutuna. Gutunak amonarenganako lotura estutuko duelakoan, irakurtzeari ekin diot eta, nahi gabe, mugagabearen isla diren hitz hauek zeharo hunkitu naute:

Ahizpa maitea:

Joanak dira hiru urte ametsak egi bihurtu nahian, itxaropenaren itsasuntziak hona ekarri ninduenetik, baina jada hondoratu da ene batela. Gutun hau idazten ari nai-

*zen bitartean begiak ere lausotuak ditu tristurak. Etorki-
zunak arantza zorrotzegiak ditu ni bezalako larrosa zimel-
du batentzat.*

*Egun guztiak grisak dira hemen, ezin jarraitu dezaket
horrela. Ezin esan diezazuket zoriontsu naizela, ez baita
horrela. Pertsona jatorrez inguraturik nagoen arren ba-
kardade garratz batek eguzkiaren izpi argitsuak hatzema-
tea eragozten dit.*

*Non ote daude garai bateko ametsak?
larrosa garratzan da ene guraria
inoiz egi bilakatuko ez den utopia,
inoiz biziko ez dudan etorkizunean sortua.
Larrosa garratza da ene guraria,
ene zainetan nabari dudan zapore garratza,
basamortua diren zainetan
ezintasuna loratzen den basamortua.*

*Ezin jarraitu dezaket horrela. Jada hartua dut eraba-
kia, nahiz eta badakidan Micheli nahigabe izugarria sor-
tuko diola ene jokaerak.*

*Etzi hartuko dut Euskal Herrira itzuliko nauen itsa-
suntzia. Maite dudan jendearengana gerturatuko nauena*

*Arren eskatzen dizut ez emateko ene erabakiaren berri
aita maiteari, ez baitut inolaz ere samindu nahi.*

Maitasunez

MARIE

Micheli bere erabakia jakinarazi ondoren, portura era-
mango zuen gurdia hartu zuen Mariek. Sentipen kontra-
ja-

rriak nabaritzen zituen bere baitan; alde batetik senarrari eragin zion tristurak zeharo mintzen zuen, baina, bestalde, sorterrira itzultzeak irrika deskribaezina sortzen zion.

Bidaia zirrargarria izan zen. Itsasoaren edertasunaren inguruko gogoetetan murgildurik zegoela, gizonezko ahots ezti bat entzun zuen, hotzikara bortitza eragin zion ahots ederra, belarrira hitz goxoak xuxurlatu zizkion ahots sako-na. Mariek ez zuen burua jiratu nahi, bere bizitza berregiteko zuen nahiari egotzi baitzion entzuten ari zena, baina, halako batean, esku baten fereka nabaritu zuen bere masail leunean eta, bapatean, gorputzak ez ziola buruari kasurik egiten nabaritu zuen.

Ausardia handikoa iruditu zitzaion ezezagun haren jo-kaera eta, korrika, logelara korrika abiatu nahi zuen arren, hankek ez zioten jaramonik egiten. Albora begiratu eta gizon beltzaran eta eder bat begiztatu zuen. Nor ote zen gizon hura?

Buruan biraka zebilkion galdera hari berehalakoan erantzun zion gizaseme misteriotsu hark. Juan Idigaray omen zuen grazia eta, herriminak jota, Ameriketatik sorterrira, Markinara, bueltan zihoala azaldu zion neskatzari. Hitzaspertu sakon bezain xalo bati ekin zioten orduan eta Mariek beste inorengan aurkitu ez zuen zerbait aurkitu zuen Juanengan; sentipen berezi bat sorrarazten zion zerbait.

Mariekin bihotza ireki zion Juani, jada utopia ziren bere desio eta ametsen berri eman zion, maite zuen guztia Euskal Herrian utzi eta Ameriketara bidaiatzera bultzatu zuen amets haren berri. Malkoek neskaren begiak lausotzen ziztuzten, baina ez zuen negarrik egin nahi egun hartan bertan ezagututako gizon haren aurrean, ezingo zuen jasan

euren begiradekin eraikitako paradisia negarraren ondorioz erortzea; baina gogoeta horietan murgildurik zegoelarik, malko bat nabaritu zuen bere masailan behera; bizitako une latzak islatzen zituen malko mingotsa.

Ama etorri da oraintxe ene gelara eta amonaren egunerokoa eman dit berau irakurtzeak nire samina arinduko duelakoan, etorkizunaren beldur garenean atzera begiratzeak bultzada hartzen laguntzen baitu. Amonak bazuen idazteko dohain berezi bat eta, haren hitzak irakurtzean, gertakari haiek bizi izan banitu bezala sentitzen naiz.

1910eko agorrilaren 15a

Eguneroko maitea,

Gaur ezagutu dut ene bizitzako gizona; zoriontsu egingo nauena. Azal beltzaranak eta itsasoaren sakontasuna gordetzen duten begi berde horiek erabat txunditurik utzi naute.

Ezin dut bera ez den beste inorengan pentsatu. Juan egin da ene amets eta desio guztien jabe; bizitza desertu huts bat iruditzen zait bera gabe.

Baina nola azaldu nire barnean nabari ditudan sentimendu hauek?

Bere begiei begiratu baino ez dut egin behar bere niganako maitasunez ohartzeko, baina ez ote da errukia bere begietan islatzen dena?

Bihar, bihar aitortuko diot ene maitasuna eta horrela egia jakingo dut. Maite banau ez dut ezer galduko eta, ez bada horrela, gutxienez lasaiago egongo naiz.

Beldurra eta irrika, zein baino zein indartsuago, nabari ditut ene barnean lehia bizian. Gai izango al naiz bihar arte itxaroteko?

*Bihotzaren oihartzuna
dugu nahikoa kaxkarra,
amodioan kontutan
min ematen dun bakarra.
Askotan ernegatzen da
barruan daukagun arra,
halere sentitzen dugu
laztan goxoen beharra.
Nahiz askotan izaten den
herabe eta koldarra
nahiz ta sarritan entzuna
ene barruan marmarra
ezin aldendu dezaket
niregan duen indarra,
bihotzak esaten duna
ezin inoiz izan txarra.*

Ez zen Mariiek nahi bezain laster iritsi egunsentia. Ohean jira eta buelta igaro zuen gau osoa, lokartu aurretik hartutako erabakia ez baitzen une bat bera ere bere pentsamenduetatik aldendu. Eguzkia irteten hasi orduko jantzi zuen bere soineko ederrena eta, itsasora begira sosegatuko zelakoan, gelatik atera zen.

Gelatik irten orduko, ordea, gutun bat aurkitu zuen atearen parean. Eskuen dardarari eutsi ezinik irakurtzeari ekin zion. Juanen gutun bat zen; Marierekiko maitasuna aitortzen zuen gutuna. Baina irakurri zuenak nahigabe izugarria sortu zion Marieri: Juan ezkondurik zegoen, nahiz

eta bere emaztea Ameriketara bizi. Halere, argi eta garbi azaltzen zion amonari bera zela maite zuen emakume bakarra eta emaztearena ez zela amerikar naziotasuna lortzeko jukutria bat baino izan.

Marie ez zekien zer egin; ezin zuen jada ezkonduko zegoen gizon bat maitatu. Baina, bera ere ez al zegoen egoera berean, maite ez zuen gizon batekin ezkonduko? Gogoeta horietan murgildurik zegoela, Juan agertu zen bere gelara, amona gosaltzera gonbidatu nahi zuela eta.

Gosari arraroa izan zen hura. Biak isil-isilik zeuden, euren sentimendu nahastuak ordenatu nahian. Halako batean, Marie hasi zen hizketan eta esan zuenak bera ere harriturik utzi zuen; ezkontzerik ez zuten, elkarrekin bizitzeko proposatu zion bere maiteari. Juanek ez zekien ametsetan ari zenentz, baina pozez zorutzen onartu zuen proposamena.

Euskal Herrira iritsi zirenerako jada erabakia zuten euren maitasun kabia finkatuko zuten herria Lekeitio izango zela. Kostaldeko herri polit hark behar zuten lasaitasuna eskaintzen baitzien.

Lehorreratu bezain laster abiatu ziren Lekeitiorantz eta, ahal izan zuten bezain azkar, etxetxo eder bat eraiki zuten itsas hegian. Ezkondu gabe zeuden arren, lau seme-alaba izan ziren euren maitasunaren lekuko eta, aitonaren laguntzaz, amonak hainbeste amesturiko nahia egi bihurtzea lortu zuen: Marie Laplace euskal kantari ezaguna bilakatu zen.

Luis XIII.ari, xake

Amaia Panizo Saez de Maturana
J.M. Iparragirre institutua
Urretxu

Ez da bost kontinenteetan zehar errealitate jakin bat oinarriztat hartzen ez duen kondairarik; orobat, zaila izango litzateke, mundu zabal honetan kondairarik gabeko herriarik topatzea. Baina denborak bere bidea egiten du eta kondairak transmititu egiten dira belaunaldiz-belaunaldi eta, horrela, batzuk eraldatu egiten dira, gizaldi berri bakoitzak bere ezaugarriak ezartzen dizkiolarik. Beste hainbatek, ordea, ezkutuan diraute mendeetan zehar, egunen batean, argitara aterako diren unearen zain.

Fontainebleau jauregia, 1631. Bibolinen doinu gozoa dantza aretoan zehar hedatzen hasi zen, erregeak musika hasteko agindua eman orduko. Gonbidatu guztiek alaiki ekin zioten dantzari, jauregi barruan, erregearen bizitza arriskuan jar zezakeen edozein liskar ekiditeko egokitu zen mosketari taldearen begiradapean. Bertan nintzen nire adiskide Sebastienekin batera, kapitainaren esanak beteaz, Ana erregina babestearren geure bizitza emateko prest. Inoiz baino ederragoa zegoen Ana, soilik erregina batek izan dezakeen berezko dotoreziaz jantzia, bere azalaren zurbiltasun liraina jauregiko lorategi amaitezinak

argitzen zituen ilbetearen parekoa zelarik. Beilada arazorik gabe igaro zen. Erregea, ikuskizunaz gogaitua, ohi baino goizago erretiratu zen bere ganbarara, bertan bildutakoak pixkanaka aretoa husten zihoazen bitartean. Erregina jauregian zehar noraezean ibili zen. Richelieu kardinalak kapitainari agindu zion moduan, Sebastien eta biok gertutik jarraitzen genuen haren ibilaldia. Artega zirudien, bere pentsamenduetan murgilduta. Dantza aretoa apaintzen zuten ehundaka loreetatik hautatutako larrosa gorri bat eskuetan zeramala iragan zituen koadroz apaindutako galeriak, Dianarena, Oreinena... Honela, pinuen haizpeko atarira ailegatu ginen. Une hartan erregina, gurgana biratuz, ahapeka hitz egiten hasi zen.

– Frantzia maite al duzue?

– Bai, majestate.

– Ziur naiz erregearen alde bizitza emango zenuketela. Zuetako baten presentzia besterik ez dut behar, gaur leku honetan gertatuko denaren konstantzia gera dadin. Jarrai nazazu.

– Berorren esanetara, majestate.

– Zuk itxaron ezazu gure irteera. Ustegabekoren bat sortuz gero, joka ezazu jasotako manakuntzen arabera, zure lanagatik saritua izango zara eta.

Erregina haizpean barrena jarraitu nuen. Sarreratik ez oso urrun argitasuna somatu ahal zen. Pasagunean aurre-ra gindoazela espainiar gizonezkoen bozak argi aditu zitezkeen. Ana, pasagunea amaitzen zen gune zabalago batera iristeko metro batzuk falta zirela, gelditu egin zen eta, momentu batez, bertan zeuden bi gizonen hitzak entzun zituen.

– *Tropak prestatuta daude Fontainebleau hartzeko.*

– *Agindua jaso bezain laster erasotuko dugu.*

Harri eta zur geratu nintzen, Espainiak jauregia asaltatzeko plana prest zeukan zegoeneko. Anak, ordea, eskenari begira jarraitu zuen doilitu gabe.

– *Majestate, erregea jakinaren gainean jarri beharko genuke. Etsaiaren tropak jauregia erasotzeaz daude eta goardia lehen bait lehen bildu beharra dago...*

– *Ez zaitez estutu, gau honetan gomendatu zaizun misioa hastear dago eta.*

Azken hitzak ebakitzen zituen aldi berean gizonenganako bidea hartu zuen, tinko.

– *Gabon jaunak.*

– *Ana, arreba maitea, zure zain geunden. Ikusten dudanez, nire aholkuei jaramon handirik egin gabe, lagunduta etorri zara...*

– *Aski da, Felipe! Ez dago denbora galtzerik. Gaspar, lekututa al daude tropak?*

– *Bai, majestate. Dena prest dago jaukimenduari ekiteko.*

Une hartan, Richelieu kardinalak jatorri espainiarra zuen erreginaren aurka zituen susmoak ezezik, zorionez edo zoritxarrez, hara eraman ninduen jagotaldi zorrotza ere ulertu ahal izan nuen. Frantziaren etorkizuna emakume lirain haren esku zegoen eta Felipek, Espainiako erregeak, Olivareseko konde-dukea alde zuela, irrikaz itxaroten zion bere arrebaren onespeneri, frantziar tronua bereganatzeko.

– *Eman diezazkiegun, ba, premiazko aginduak eta ihardun daitezela taiututako moduan. Felipe, laster Frantziako errege izango zara. Ez ezazu, arren, akatsik egin; ez ezazu utzi zure herria gosez hiltzen ... Gorentasun! Zeri zor dio-
gu zure agerrera?*

– *Harritu egiten al da ni ikusteaz, majestate? Sentitzen dut solasaldia eten izana; faborez, jarrai bezate, ala Erregearen aurka konspiratu nahian zebiltzan akaso? Dirudie-
nez zuzen nengoen, Erreginak bere herria traditu du.*

– *Ez zaitetz nahastu, gorentasun. Ez baita gauza bera herria edo Erregea traditzea.*

– *Erregeak herria ordezkutzen du. Erregearen aurka konspiratzea, majestate, herriaren aurka konspiratzea da.*

– *Ez dut uste Erregearen axolagabekeriagatik gosez hiltzen ari den frantziar herriak gorentasunaren iritziare-
kin bat egingo duenik. Luis ez da duina Frantziako errege izateko.*

– *Ziur naiz Erregeak gertakari honen berri arreta handiz jasoko duela. Pozten naiz nire esanak egia direla froga dezakeen mosketari fidel baten lekukotasuna izateaz. Oraingoan ez da hain erraz itzuriko, Austriako Ana. Jainkoak urriki beza!*

Richelieu kardinalak haizpea utzi zuen. Goibeltasuna nagusitu zen bere herria sufrimendutik askatzeko aukera galdu berri zuen erreginaren aurpegian. Felipe, aldi berean, ospina baino garratzagoa zen porrota irensten saiatzen ari zen.

– *Operazioa eragotzi beharra dago, Felipe. Gaspar, jauregia utzi bezain laster, deitu itzazu kapitainak, erretretari ekin diezaiotela lehen bait lehen.*

– *Ez da erraza izango jauregitik alde egitea; Richelieu ezagututa, goardia zabaldua egongo da honezkeru.*

– *Faborez, Felipe, ez zaitetz estutu. Galtzeko aukera ere aintzakotzat hartu nuen egitamua egiteko garaian. Nire eskoltaren laguntza besterik ez dugu behar.*

– *Ana, maitea, benetan uste al duzu mosketari batek bere laguntza eskainiko digula?*

– *Nik neuk erregea saldu badut, zergatik ez luke mosketari batek gauza bera egingo? Jean Pierre, ez dut zalantzan jartzen egundaino erregearekiko izan duzun leialtasuna, baina zure erreginarekiko eraspentak erregea bera traditzeko adina sendotasun ba al du?*

– *Bai, majestate.*

Segurtasun osoz erantzun nuen, bihotzez maite bainuen erregina. Ustekabean harrapatu ninduten, ordea, Anaren hitzek; izan ere, nire izena ezagutu ezezik, haren-ganako sentitzen nuen mirespenaren berri ere baitzuen.

– *Ez nuen zugandik gutxiago espero, Jean Pierre. Lagun itzazu Gaspar eta nire neba, jauregiko hegoaldean dagoen albateraino. Bidea azkar eginez gero, ez duzue arazo handirik topatuko, goardiek ixten duten azkeneko atea hura da eta. Jean Pierre, itzultzen zarenean zure zain izango nauzu Dianaren galerian. Ez zaitetz beldur izan, Richelieuk esandako guztia ezezta ezazu, erregeak zure hitzak sinestuko ditu eta. Zorte on.*

Anak esan bezala, ez genuen oztoporik aurkitu albaterainoko bidean. Gezurra bazirudien ere, Richelieu kardinal arteriotsua irteera hura zaintzeaz ahaztu egin zen. Alabaina, atera heldu ginenean hura zaintzen zuten bi go-

*ardiak hilik topatu genituen, gorputza ezpata batez zehar-
katuta zuten, Sebastienekin batera. Felipe erregea eta Oli-
vareseko konde-dukea jauregiko harresietatik at zeudela,
Dianaren galeriarantz abiatu nintzen, nire lagun minaren
heriotzagatik kopetilun. Koadro bati sò aurkitu nuen erre-
gina galerian.*

*– Sebastienen heriotza ez da alferrrikakoa izan, Jean
Pierre. Frantziar herria maite eta, nik neuk bezala, herria
pairamendutik askatu nahi zuen. Berak aukeratu zintuen,
berak heriotza aurkituz gero, konspirazioaren berri mun-
du osoan eman zenezan. Bete ezazu bion adiskidearen
nahia, Jean Pierre, baina, orain, ezezta itzazu Richelieu-
ren esanak. Gogoan izan zeu zarela lekuko bakarra.*

*Kardinalak ezin izan zuen inoiz frogatu, gau hartan
haizpean suertatutakoa eta erreginak, ordurarte bezala,
jauregian zehar noraezean ibiltzen jarraitu zuen. Noizean
behin, hegoaldeko albateraino gerturatu eta bertan lora-
tegietan zehar bildutako lore sorta bat uzten zuen, bere
adiskidearen omenez edo, apika, bere maitalearen oroi-
penez.*

Jean Pierre Dubois

Athos, Phortos eta Aramis mosketariak, d'Artagnanen laguntzaz, Frantziako errege zen Luis XIII.a etsaien era-
soetatik babesteko bizi izan zituzten gorabeherak konta-
tzen ditu Alexandre Dumas handiak nazio arteko ospea
irabazi duen eleberrian. Haatik, Dumasek ez zuen ezagutu
Luis XIII.aren aurkako konspirazio paregabea, Frantziako
historia guztia alda zezakeena alegia.

Maite Bengoetxea begira zegoen

Daniel Ferreiro Villaluenga
Txindoki-Alkartasuna institutua
Beasain

Maite Bengoetxea olatuetara begira zegoen; miresten zuen itsasoan jaio, han parean, Karibe urruneko erraietan alegia, eta oinekin sentitzen zituen arrocketako pitzaduretan, hasperen bat bailiran, kolpatu eta ezeresten ziren olatuetara. Pixka bat haratago begiratu zuen gero, itsasoak eta zeruak bat egiten duten marra hartara kasik, eta beste olatu bat ikusi zuen, *–honako hau orain jaiotzen ari da–*, pentsatu zuen. Itsasoaren erdian altxatu zen lehenengo, mementu konkretu hartara arte itsasoa laua izan zen leku berean, alegia; eta kostalderantz mugitzen jarraitu zuen, korrika batean, pauso bakoitzean bere tamaina handitzen zuelarik. Baina San Jose de Macarica izeneko herri hartan bazegoen hondartza bat *–zenbat aldiz ikusi ote zuen Maitek egun berriaren iratzarpena bertan eserita–*, eta gure uhinak ere bazekienez, beste olatuek bezala, lur lehorrean egotea debekatua zuela, hondartza hartan bertan lehertzea erabaki zuen, edo Maite eserita zegoen arrocketan bestela.

Maitek hasperen batez agurtu zuen Naturaren seinale hura, ikur simple bezain lasaigarria, eta orduan ia ez zion inporta irla honetan egotea, Karibe aldeko leku ahaztu honetan, aberritik hain urrun. *–Ez daukan kexu izateko esku–*

biderik, Maite, jende honek ondo tratatu hau, oso ondo, beraietako bahintz bezala—, esan zion bere buruari. Begiak berriro ere herrirantz zuzendu zituen; hondartzan ume batzuk jolasean ari ziren. Josetxo al da, ordea? Bai, dudarik gabe, bera da, bularra agerian beti. Baina janzkera zaintzen noiz ikasiko du ume honek? Eta beti berdin, indigena gaixo horrekin burrukan. Alajaina!

Farre ozen batekin alaitu zuen arratsalde hartan malenkoniatura zeukan umorea. Gloria ere han ikusi zuen, kokoteroen azpian; bere txalupa txikia hondarraren gainean, eta bertan emakumea eserita, hurrengo egunean arrantzarako beharko zituzten sareak konpontzen. Zenbat urte ote zeuzkan emakume hark? Bere azal zimurtuagatik ehun urte ere bai; agian bost urte, ordea, bere izakera begiematen bazenuen, eta trebetasunagatik adoleszenta zirudien.

Banbuzko txabolei begiratu zien orduan. Momentu hartan, arratseko argi gorrixkaren azpian egonda, politik ere iruditu zitzaizkion, ez hona iritsi zenean bezala; orduan konpondu beharreko mila gauza ikusi zizkien *lugarsito horiei*. Eta konponketak egin ere egin zituen, berak bakarrik, jendeak denbora “gauza garrantzitsuagoetan” erabiltzeko aholkatzen zion bitartean. Ordu asko iragan zituen etxola horiei errefortzuak jartzen, eta, orduan, gau batean erauntsi bat etorri eta dena suntsituta utzi zuen. Irribarre batekin gogoratu zituen ordu haietan sentitutako etsipena eta zapuzketa, eta pena, eta beldurra, batez ere beldurra; zer egingo zuen handik aurrera jende gaixo hark? Etxolarik gabe, azukre kainen soroak suntsituta, fabrika zaharra egoera tamalgarrian zegoela... nola bizi behar zuten? Non lo egingo zuten? Eta okerrago oraindik, zer gertatuko zitzaion jende hari beste erauntsi bati handik iragatea otutzen bazitzaion? Arratseko ordu bero hartan errezatzen pasatako

gau hura gogoratu zuen. Misioko eliza jendez gainezka zegoen, bertan babesten baitziren denak; ordu gogor haie-tan otoitz egiteko esan zien Maitek, otoitz egiteko Jaunari. Baina jendeak kasurik apenas egin zion. Izan ere, atzerri-tarra zen, *La Monjita*, bere lehen erauntsia beldur barrega-ri batez iragaten ari zena.

Eta bat-batean goiza iritsi, eta jendea irten egin zen eli-zatik; Maiteri miragarria iruditu zitzaion abiaduran, per-sona haiek lanean hasi ziren, bi egunetan herria lehengo moduan utziz. Lurretik botata zeuden azukre kaineekin etxola berriak eraiki zituzten. Oraindik bizirik geratzen zi-ren haziak berehala birlandatu zituzten, eta landatuak izan zirenetik hilabete batera erne ziren; itsasoko urak lurra ga-tzatua utzi baizuen, emankorragoa bihurtuz. Fabrika berri bat egin zuten, lastoz nahasitako lokatzez eraikia. Material berarekin zutitu zuten eliza; aldarea eta gurutzea ere salba-tu ez zirenez, berriak eraiki zituzten, egurrezkoak, baina ederrak hala ere. Gau hartan lezio bat ikasi bazuen, hona-ko hau izan zen: Sanpedrotarrek Maiteren laguntza behar bazuten, alor izpiritualean bakarrik zela, alegia.

Eguzkiaren mugimendu motela zeukan begien aurre-an; itsasoak eta zeruak bat egiten duten marra hartatik ger-tu zegoela, gorri kolore piztu batekin, oraindik ere izugarri berotzen zuen. Supituki, pozik egoteko arrazoiak bazituela erabaki zuen. Altxatu eta besoak ahal izan zuen guztia lu-zatu zituen, aharrausi zabal bat egitearekin batera. Ara Ja-cinto deitzen diren guakamaioen soinu karrankariak agur-tu zuten bere erabaki berria, eta gero Tacuarita txoriaren abots zizikaria entzuten zuela iruditu zitzaion eta, baita, Tangará baten dei sexuala, eta bat-batean txori hauek eta beste asko ere mugimendu urduri batean hasi ziren; koli-bri erlezaleak entzun zituen, arrapalada batean oihanetik

alde egiten, eta hara begiratu zuen, ez ordea beldurrez, ondo baitzekien zein zen iskanbila hura sortzen ari zena. Norbaiten bisita espero zuen, eta jadanik hemen zegoen.

– *Señorita, señorita!* –Mateo zuen izena, hamaika urte zituen eta beregana tlacuache baten abiadan zetorren, gure hizkuntzan “uretako txakurtxo” esan nahi duen marsupial antzekoa da tlacuachea, benetan azkarra. –*Venga corriendo, señorita! Ya llegó! Ya llegó!*

Hori esan eta, berriro, desagertu zen oihanean barrena, baina oihukatuz jarraitu zuen, *Ya llegó!* zioen dei hura palmondoen artean zabalduz. Maite atzetik joan zen, herri-rantz zihoan bidean behera, bere adinak uzten zion bezain azkar. Hondartzara iritsi zenean, ume guztiak han zeuden, izugarritzko iskanbila batean; izan ere, El Enano –Ipotxa– ezizenez ezagutzen zuten gizona herrira iritsi zen, bere ondasun bakarra zen itsasontzi zahar haren gainean. Ipotxa oso ezaguna zen inguru haietan, batez ere azken erauntsian zazpi pertsona salbatu zituelako. Beste gizonak beren etxeetan geratu ziren bitartean, ekaitzarengatik beldurtuta, Ipotxak bere motordun txalupa martxan jarri eta han ibili zen, gora eta behera, laguntza behar zutenei ematen. Ipotxa deitzen bazioten bere metroa eta berrogeita hamaibost zentimetroko garaierarengatik zen, baina txikia zen arren bi gizonen indarra zeukan, edo hori uste zuten behintzat herriko umeek. Beraiantzat idolo antzeko bat zen, eta gainera hiriburutik zetorreanean karameloak ekartzan zizkien, irlan askotan ikusten ez zen ondasuna berau. Horregatik zen hain ezaguna, eta herrira iristen zen bakoi-tzean, orduan bezala, haur guztiak hondartzara jaitsi, eta beraien idoloa miresten zuten. Eta han zeuden gurasoak ere pozik sentitzen ziren, seme-alabak honela ikusita. Eta, orduan, alaitasunak festa pizten zuen, eta ia beti zouk ba-

ten erritmopean bukatzen zuten denek, Ipotxa barne; hondartzan su bat pizten zen, eta honen inguruan biltzen ziren denak, dantzan, edaten edo marihuana erretzen zuten bitartean. Eta gaurko eguna ez zen salbuespena izango.

Ipotxak gaur Maiterentzat ere sorpresa bat zeukan gordeta. Umeeak osatzen zuten korrotik aldenduz, berarengana hurbildu zen. Doluminezko aurpegi batekin begiratzen zion.

– *Gabon, señorita* –Ipotxak begiak lurrean jarrita zituena, nondik hasi ez baleki bezala–. *Gaur goizean eskutitz bat iritsi da zuretzat hiriburura. Camino luzea egin du honaino, bai; gaur goizean iritsi da, barku euskaldun batean. Barkuko kapitainak esan du zuretzat dela, eta nik, tira, ekarri egin dizut honaino, karteroa ere banaiz, ya me entendéis* –Ipotxak eskua berarengana luzatua zeukan, eta bertan sobre horixka bat ageri zitzaion. Maitek sobrea hartu zuen, Ipotxak beronen edukia jada irakurria zuen, segurantzaz osoaz. Azalean Maite Bengoetxea jartzen zuen, errubrika konplikatuta batekin idatzita. Seroraren eskuak dardarka hasi ziren, aurpegia marfilezko perla batek zeharkatzen zuen bitartean. Beasain, Lurralde Baskoiak... bere begietan egunabarraren diztira agertu zen, aspaldidantik ezagutu ez bezalako indar sutsuz.

Eguzkiak horitutako azala ama baten maitasunez ireki, eta behatz meheekin barruko papera laztandu zuen. Paper zaharraren taktu zimurtsuak fereka itzuli zion, aspaldiko lagun baten modura. Gero, guztiz seguru egon zenean, azaletik atera eta sudurrera gerturatu zuen. Orria usaindu zuen, baina leunki, maitasunez, aintzinako oroipenen lurrina bilatuko balu bezala. Azkenik, erlijio errito baten azken aitagurea balitz bezala, oraindik begietan zeuzkan malkoak sikatu eta eskutitz hark zekarrena irakurtzeari ekin zion.

Berehala konturatu zen, ordea, eskutitz haren igorlea ez zela bere etxeko inor, epaile beasaindar bat baizik.

Ulertzekoa da momentu hartan sentitu zuen kamusada, baina horrek arreta gehiagorekin irakurtzen jarraitzea eragin zion. Hau da, gutxi gora behera, bertan jartzen zuena:

Beasainen, 1890eko maiatzaren 2an

Jose Irazu Irazu. Epaile Jauna

Andere agurgarri hori:

Nire eskutitzaren arrazoia mingarria den arren, frankotasun osoz hitz egingo dizut. Aste batetik hona zure guraso eta anai-arrebak desagertuta daude. Apirilaren hogeita bosteko arratsean, asteroko ohitura zuten bezala, Beasaingo herrira jaitsi ziren, eta herri honetako merkatuan ikusi zituzten azkenekoz. Egun berean, gaueko hamaikak inguru, keete bat agertu zen Usurbe mendiko Ipar magalean, zure familiaren etxea zegoen lekutik gertu. Bizilagunak hara joan ziren berehala, eta baserria sutan aurkitu zuten, garrak leihoetatik ere ateratzen zirelarik. Lan izugarria eginda, sua itzaltzea lortu zuten, baina etxe barnean ez zuten gorpurik aurkitu. Animalien arrastorik ere ez zegoen, gauza harrigarria berau!

Horregatik, inguruko basoren batean egongo zirela suposatu, eta bilaketa bat antolatu genuen. Aste osoan zehar ehundaka gizon ibili dira Beasain inguruko mendiak arakatzen, inongo emaitzarik gabe. Atzo lana amaitutzat eman genuen, eta gaur hipotesi berriak agertu dira. Zure osabak hil zituela dioten abotsak entzun dira herrian, gorpuak mendian izkutatu zituela, baserriari su eman aurretik. Hark zuen aitarekiko sentitzen zuen gorroto ezagunak bul-

tzatuta egin duela diote, zure amarekin erlazionatuta dagoela eta, seguru asko, ezagutzen duzun arazo horrengatik. Aguazilak sutearen arrazoia ikuiluan zegoen olioizko lanpara baten erorketa izan zela argitu digu. Berau sostengatzen zuen eltzea egoera txarrean omen zegoen eta gau hartan puskatu egin zela. Misterioak, ordea, hor darrai, gorpuak aurkitzen ez diren bitartean. Jendea ez dago lasai. Eltzea zure osabak urratu zuela diote. Honi buruzko frogarik ez daukagun arren, jada hasi dira nire gizonak hipotesi hau aztertzen, eta hurrengo asteetan emaitzak lortuko ditugun esperantza gordetzen dugu.

Besterik gabe, jaso ezazu nire dolumin sakonena. Kasu honen inguruan ematen diren pausoen jakinaren gainean egongo zara. Agur bero bat

Jose Irazu Irazu Jauna

Ipotxak zuzen-zuzen begiratzen zion, Maiteren negarra esperoko balu bezala. Baina Maitek guzti hura urrunegi zeukan, urrunegi berarengatik negar egiteko. Tristezia ageri bat bakarrik zeukan aurpegian orain. Gizon eta emakumeak jada sua pizten ari ziren, beste batzuek etxoletatik janaria eta edaria ateratzen zuten bitartean. Festa airean usaintzen zen, eta Maitek ez zuen poz hura negar batekin zapuztu nahi. Sinestu ezin zezakeena bere osabarenganako akusazioa zen. Hark aita asko gorrotatzen zuen, gaztetan ama “kendu” ziolako, baina Maite ziur zegoen gorroto hura ez zela aita hil nahi izateko adinakoa. Hausnarketa horietan zegoela, Ipotxak zera esan zion:

– *Señorita, eskutitza ez zettorren bakarrik* –eta, momentu hartan, motordun txalupatik bi gizonek jaisten zuten egurrezko kutxa handia seinalatu zion.

– *Baina, zer da hau, ordea...* –eskutitzari begiratu zion. Harriduraz, papelaren beste aldean data ondorengo bat zetorrela ikusi zuen: “*D.O. – Zure osabaz aparte ezagutzen zaien familia bakarra. zarenez, honako kutxa hau dagokizu. Berau izan zen sutetik salbatu zen ondasun hakarra. Harri-garria benetan, egurrezkoa dela kontuan hartzen badugu. Kutxatik ikerketarako beharrezkoa dena bakarrik atera dugu, beste guztia zure gurasoek utzi zuten bezala dago.*”

Kaxari begiratu zion. Handia behar zuen, pisutsua, gizonek jartzen zuten aurpegiarengatik, eta haritz egurrez eginda zegoen, aspaldidanik ikusten ez zuen egur mota hartaz, alegia. Baserri batean egoteko oso dotorea zen, *dotoreegia*, agian. Baina horrek ez zuen Maite harritu. Hark ondo ezagutzen zuen kaxa hura, haurra zenetik gurasoen gelan ikusi zuen, ohearen oinean, familiaren sekretu eta ondasun baliotsuenak gordetzen zituelarik. Mota horretako gauzak gordetzeko baserriko leku egokiena, bakarra. Azalaren barnean kobrezko zerrail handia irekitzen zuen giltza aurkitu zuen. Ez zirudien sute batetik salbatua zenik, itxuraz berria aurkitu baitzuen.

Gizonei jarraitzeko esan zien, kaxa eskolan eduki nahi zuela. Eskola etxola bat zen, hondartzatik hogeit hamarera, eta besteak bezala banbuzko kainez eginga hori ere. Teila-tua pilatutako lasto multzo batek osatzen zuen, euria jasateko eraiketa mota hori nahikoa gertatzen baitzen.

Gizonak kutxa utzi eta eskolatik joan zirenean, Ipotxak Maiteri estalki astuna zabaltzen lagundu zion. Barnean zer aurkituko zuen bazekien, mila aldiz ikusita baitzeukan: amaren igandetako soineko dotorea, aitaren traje beltza, bien zapatak, errelikarioa, bibliaren bat eta familia osoa agertzen zen argazkia.

Baina han zerbait arraroa zegoen. Arropak han zeuden, baita zapatak ere, biblia eta errelikarioa han zeuden..., baina han familiaren erretratoaz gain beste sei argazki aurkitu zituen, inoiz ikusi ez zituen sei argazki. Banan-banan pasatu ziren argazkiak beren begien aurretik, eta gero eta harrituago zegoen. Argazki batean bere gurasoak zeuden, zahartuak baina itxura onarekin, beste batean bere ahizpa eta beronen semea, baina hurrengoan *familiaren behiak* agertzen ziren, eta hurrengoan *oiloak eta oilarrak*, eta *untxiak* beste batean; azkenekoan, berriz, Maitek eskutitzetan irakurritakoaz bakarrik ezagutzen zuen zakurra zegoen, Lagun. Baina zoratuta ote zeuden? Dirua animaliei argazkiak ateratzen xahutzen al zuten? Maitek ezin zuen ikusten zuena sinestu. Dirua ondasun eskas bat zen, batez ere seroraren gurasoak bizi ziren lurraldean, eta ez zeukaten honelako luxuetan xahutzeko adina. Maitek Ipotxari bakarrik uzteko eskatu zion, hari guztiari buruz pentsatu behar zuela. Eskolan geratu zen, bakarrik, kutxa eta sei argazkiak, behin eta berriro behatuz.

Istorio hau erauntsi batekin bukatzen da, San Jose de Macaricako biztanleak irlako hondartzan festa baten erdian harrapatu zituelarik. Bat-batean etorri zen, irla iparraldetik mendebaldera zeharkatuz. Ilunabarrean, jendearen algarak zeru izartu batek zaintzen zituen. Supituki, ordea, hondarrean egindako suaren garrak dantzan hasi ziren, gero eta bortitzago. Palmondoen adarrak ere astintzen hasi ziren, haizearen abiadura handitzen zen heinean. Ordurarte lasai zegoen itsasoa bat-batean haserretu egin zen, kostaldearen kontra olatu izugarriak bidaliz. Izarren diztira hodei beltzek estali zuten, urruneko trumoi berrunba entzuten zen bitartean. Erauntsiaren indarra inoiz baino bortitzagoa izan zen aldi hartan. Garraisi tartean, jendea

elizara joan zen korrika bizian, salbatuko zituen babesaren bila. Baina Maite izena zuen serora hura ez zen agertu. Gizon bat bere bila atera zen, haize gogorrari aurre eginez, irlako eskolan zegoela bazekielako, iritsi zenean, ordea, ileak laztuta, eskola sutan zegoela ikusi zuen, eta haize indartsuak ere ezin zituen sugar haiek itzali. Inguruan ere ez zuen Maite aurkitu, eta barnean harrapatuta egongo zela pentsatuz, garrei aurre egin eta barrura sartu zen. Baina han ez zegoen ezer, gorpurik ere ez. Kutxa bat bakarrik, gelaren erdian, egurrezkoa izan arren suak hartzen ez zuena. Maitek alde egitea lortuko zuela pentsatu zuen orduan, elizan babestea lortuko zuela. Han, ordea, jendearengandik beldurrak eragindako ardura eza bakarrik jaso zuen. Bere metro berrogeita hamabost zentimetroak ez ziren nahikoak izan bere laguna zen emakume hura salbatzeko.

Hurrengo goizean, jendea martxan jarri zen herria bererraitzeko ahaleginetan. Desagertutakoen bila atera ziren gizon gehienak, baina beraien bihotzetan jada esperantzaren argia itzalduta zegoen. Lehenengo malkoak isuri ziren gau hartan, arakaketetan hildakoen gorpu urratuak besterik ez zirela aurkitu jakin zenean. Herriko jendeak atsekabe bereziz jaso zuen monjitaren desagerpenaren albisteak. Eskolako sutearen zergatia argitua zegoen: elizako atea ixteaz arduratu zen gizonak kontatu zuenez, bertan errefuxiatu baina lehenago ikuskizun beldurgarri baten lekuko izan omen zen. Gaueko iluntasuna milaka tximistak zeharkatuta, han eta hemen ehundaka su foku sortuz; ez zegoen dudarik sutea tximista haietako batek eragin zuela. Baina non demontre zegoen gorpua?

Negar garratzen artean hileta bat antolatu zuten irlako erara. Erauntsian bizia galdu zuen pertsona bakoitzaren izpirituaren tokia ziri piztu batek hartu zuen. Gero, ziri haiek

egur batzuen gainean jarri, lorez inguratuta, eta itsasora bultzatu zituzten.

Hala ere, Ipotxak Maiteren hondakinak aurkitu nahi zituena; zor ziola sentitzen zuen. Baina, orainoan ere, bere arakaketek ez zuten arrakastarik izan. Gorpua ez zen inon agertzen. Kutxa hura bakarrik, kutxa misteriotsu hura, bigarrenkoz sute batetik seinalerik gabe libratu zena. Zabaldu egin zuen, kaxa harekiko susmo bat zeukan. Bertan, emakumezko soineko bat, gizonezko traje bat, bi zapata pare, Biblia eta errelikario bat, seroraren familiaren erretratoa eta zazpi argazki aurkitu zituen. Behien argazkiaren ondoren orain beste bat zegoen, inoiz ikusi ez zuena berau. Bertan agertzen zen emakumeak irribarre atsegin bat eskaintzen zion. Gizon hark ezagutzen zuen. Maite Bengoetxea zuen izena.

PROSA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

Helmugara iristea, hori da kontua

Usua Arbelaitz Lekuona
Haurtzaro ikastola
Oiartzun

Wednesday street-eko kaleetan barrena zoaz. Eskuetan, euriaz babesten zaituen aterki berdea daramazu eta, sorbal-
dan, liburuz eta karpeta batez beteta dagoen larruzko motxi-
la. Euria ari du goian-behean, eta haize hotza; negu gaiztoa
da aurtengoa Londresen. Jendea presaka dabil, ia korrika,
beroki lodiz babesten dute beren gorputza, hotzari aurre
egiteko. Zuk, berriz, etiketa gorritz “Levi’s” jartzen duen ka-
zadora bakarrik daramazu soinean, eta lasai zoaz, inolako
presarik gabe, munduko denbora guztia zeurea izango balitz
bezala. Lehengo urteko gabonetan amonak oparitu zizun er-
loju urdinari begiratu diozu, gaueko bederatziak bost gutxi
dira. Bi minutu igaro dira, liburutegiko eskailera erraldoi
haiek jaitsi dituzunetik. Beldurra diezu, izugarrizko panikoa
ematen dizute harri hotz eta grisez egindako mailadi horiek.
Amaiezinak iruditzen zaizkizu; beste mundu batera, guretik
urruti dagoen batera sartzear zaudela iruditzen zaizu behin
“oztopo” haiek igarota; baina liburutegiko eskailerak dira
eta, agian, beraiek ez dute errurik, liburutegi hitza da zuri
ikara sortzen dizuna, hala ere, hori zuk bakarrik dakizu.

Gero eta euri gehiago erortzen da hor goitik, eta haizea
ere gero eta indartsuagoa da; bibliotekara sartzeko duzun

adorea baino indartsuagoa. Aurrera zoaz, jende gutxi geratzen da Wednesday kalean; geratzen diren bizilagunak presaka dabilta eta ezagunak zaizkizun pertsonak bekainak gora eginez agurtzen zaituzte. Zu lasai zoaz; aterki berdeari gogor heltzen diozu; haize maltzurak ez eramateko. Botak urez bustita dauzkazu eta lehen marroi argiak zirenak, orain, Londresko zeruaren antzera, ilundu egin dira. Ez zaitu axola, zuk zure martxa jarraitzen duzu, helmugara iristeko presarik gabe. Etiketa gorriko kazadoraren manga igo duzu eta, berarekin batera, baita azpiko niki beltza ere; erlojuari begiratu diozu eta bederatziak eta bost dira. “Denbora asko dut oraindik”, pentsatu duzu zure baitan, eta gorputza dardarka duzula, aintzina jarraitu duzu. Bat-batean, berotasun bat nabaritu duzu gorputzean, ez dakizu zergatik, baina eskuinera begiratu eta Simon jaunaren okindegiaren parean zaudela ohartu zara. Barrura sartu zara; guardasol berdea itxi eta “kaixo” batez agurtu duzu Simon jauna. Simon Wednesday-ko okin bakarra da. Oso gizon jatorra, beti alai dagoen horietakoa. Bere adina ez dakizu, dakizuna da berrogeita hamarrak pasata dituela. Burusoila da, motza eta borobil-borobila; zuk txikitatik ezagutzen duzu eta, agian, horregatik miresten duzu hainbeste. Barnean bero dago, zure betaurrekoak kendu dituzu, lurrinduak zeudelako eta galtzetan zenuen klinex batez garbitu dituzu. “Croissant” bat eskatu diozu Simoni; berak, irribarre batekin, ea zer moduz zauden galdetu dizu, zuk eskatutakoa poltsatxo batean gordetzen duen bitartean. Ez diozu erantzun, nekatuta zaude eta ez duzu ezer entzuten, gorra zaude, zure munduan, gainerakoengandik urruti. Simonek, aurpegi arraro batez, “croisanta” eman dizu, zuk diru justua bueltatu eta gabon batez agurtu duzu okina, atea ixten zenuen bitartean. Kanpoan hotz dago, oso hotz, eta oraindik euria botatzen jarraitzen du. Zuk, mantso-mantso, aurrera egin duzu, zure hel-

mugaren bila, Wednesday kaleetan barrena. Bidea gurutzatu behar duzu, baina semaforoa gorri dago eta itxarotea dago-kizu. Zuri ez zaizu axola, batere presarik ez duzulako. Ondoa duzun gizon gorbatadunari, berriz, axola zaiola dirudi, marmarka ari dela entzuten baituzu. Hala eta guztiz ere, ez diozu kasurik egiten, gorra zaudelako eta, gainera, zure munduan murgilduta. Gizona ez duzu ezagutzen; izugarriko kolonia kiratsa dario. Zuk ez duzu batere begiko eta, kasurik egin gabe, beste aldera begiratzen duzu. Semaforoa berde jarri denean, zure erlojuak bederatziak eta hogeimitu markatzen du. Zuri berdina zaizu eta zure martxan jarraitzen duzu. Gizon kirasduna nola urruntzen den ikusi duzu, eta bururatu zaizun gauza bakarra da: oraintxe urputzu batera erortzea nahiko zenukeela, bere trajea zikintzeko. Gizona laster galdu duzu begi bistatik eta burutapena ere aurrera jarraitu duzu; ustekabean, auto gorri bat igaroa da zure ondotik, “polita!” esanez piropoatu zaitu gidariak. Zuk eskua luzatu eta, erdiko behatza izan ezik gainontzekoak kizkurtuaz, berari bidali diozu zeinua.

Behera begira zoaz, lurrera, oraindik ere mundu arrunte-tik urrun zaude. Wednesday kalea igaro duzu jada, orain Green izeneko lorategian sartzeaz zaude. Lorategia zure halmugatik gertu dago. Green maiteminduen lilitategia dela diote, baina bikote gutxi ikusten da bertan, eta hirugarren adineko jende ugari paseatzen. Orain ez dago inor, bakarrik zaude eta ez zaizu axola. Zuk zure martxan jarraitzen duzu, aterki berdearen azpian, euriak erortzen jarraitzen baitu. Lasai zoaz, presarik gabe. Dena isil dago, haizearen eraginez mugitzen diren zuhaitzen soinua entzuten da, baita harri txintzarretan talka egiten duen zure pausu hotsa ere.

Green lorategia igaro duzu, eta helmugatik gero eta gertuago zaude. Euria geratu da, eta guardasol berdea itxi

duzu, haizeak oraindik indartsu jotzen du, hala ere, zuk ez duzu nabaritzen. Bibliotekako eskailerak baino arinagoak diren eskailerak igo dituzu eta erdian, eguzki-lore zimeldu bat duen ate baten aurrean zaude. Aterkia, atariko aterpean utzi duzu, zabalik. Eskua kazadorako poltsikoan sartu duzu, giltzak aurkitzeko. Lortu bezain pronto, ateko sarrailan kokatu dituzu, buelta eman eta atea zabaldu da. Hasperen bat atera zaizu; azkenean, helmugara heldu zara. Ez dakizu zenbatgarrena zaren, baina iritsi zara eta hori da axola zaizun gauza bakarra, betiko moduan; zure martxan jarraitzen duzulako, besteek diotenari garrantzia kenduaz; zu zeu zarelako.

Zaharrak berri

Ane Azurmendi Lasa
Loinazpe institutua
Beasain

- Hi, aizak, entzun al duk azkena?
- Zer da, ba?
- Gerta daitekeen okerrena, gerra zibila.
- Etzak izorratu, ez da, ba, egia izango?
- Ikusiko duk, jartzak irratia ta entzungo duk!

Etxera sartu da aita; esne saltzaileak emandako marmitta mahai gainean utzita, irratia jarri du.

Hauek irратиaren hitzak:

– Se ha declarado la guerra, el ejército español en Africa a las órdenes del general Franco se ha alzado contra la legal y democráticamente constituida república; estos traidores insurrectos...

Hori entzun, eta nik ia ez dut besterik ulertu, ez nengoen oso ziur gerra zenaz, baina banekien gauza txarra zela, arazoak zetoze.

Gauean, afaltzeko garaian, gurasoak serioski ari dira berbetan eta gelara joateko eskatu didate. Orduan, gure anaia altxatu eta hauxe esan du:

– Nahikoa da, ni bestaldera noa. Gainera, Joxe Luis lehengusua ta Otoko zaharrena nekin etorriko die. Hoixe hitz ein deu guk behintzat.

Gure aita berarekin ados dagoela dirudi, baina ama ez dago hain konforme. Ni ohera joan naiz, hurrengo egunean pasatutako guztiaz hitz egingo didatelakoan.

Goizean esnatu eta seiak inguru dira, Joxe, nire anaia, maleta ate ondoan utzita etorri da nigana, hauexek izan dira bere hitzak:

– Maria Dolores, nire arreba kuttuna, iritsi da banatzeko eguna, baina orri eta kartazal hauek ematen dizkizut, zeren urrutian, baina erne itxarongo diet zure gutunei. Laster itzuliko naiz, eta ez bada laster ere, benetan diotsut ez naizela zutaz ahaztuko. Amari esan diot zer egin behar duzun gutunak bidali eta nigana iristeko.

Orduan, nik, dena oso ondo ulertu gabe, musu eta besarkada batekin agurtu dut anaia; idatziko diodala zin egin ondoren, Joxe Luis lehengusua besarkatu dut eta biak agurtu ditut.

Ama negarrez hasi da, baina ez dakit zergatik, badakit Joxe gerratik ihesi dela, baina berehala itzuliko da, ziur.

Kaixo Joxe:

Zer moduz zaudete?

Ni nahiko ondo nagoen arren, zure eta lehengusuaren falta somatzen dut.

Herrian jendea falta da, eta tarteka tiroak ere entzuten ditugu; baina, lasai, gu hemen salbu gaude.

Bart oso gaizki pasatu nuen, kotxe handi bat joan baitzen goiko Arbeltxo baserrira; badakizu hor Maria, nire laguna, bizi dela; autotik, armaturiko gizonak atera, etxera sartu eta Arbeltxoko aita eta seme zaharrena, Inaxio Mari, eraman zituzten. Mariak negarrez igaro omen du gaua, baina dirudienez orain hobeto dago.

Gure maestra Doña Maria Belen joan egin da eta orain erderaz ikasten dugu, beste batekin. Baina nik, seguraski, utzi egingo diot klaseetara joateari, etxean zeregin ugari baitago.

Gu denok etxean zuen etorreraren zain gaude.

Rosa Mari herriko erdialdera joan da, neskame, erdiko ostatura. Beraz, etxean gehiago lagundu beharra daukat.

Beno, ez duz uste ezer kontatzerik ahaztu zaidanik. Musu handi bat eta agurrik beroenak nire partetik

Maria Dolores

Aita, ama, Rosa Mari, Joxe Antonio eta Joxe Mariren partetik ere agurrik beroenak.

Gutuna idatzi eta Iturritzako esne saltzailearekin joan naiz herrira; bertan, zuzenean plazara joan eta amak esandakoa eskatu diot arrain saltzaileari eta, gero, diruarekin batera anaiarentzako gutuna pasa diot, diximuloan, jendea konturatu ez zedin. Agurtu eta etxera itzuli naiz.

Gaurko goiza izan da gudan daramagun bi urte eskas eta luze honetako egunik gogorrena.

Sukaldera jaitsi naizenean, gurasoak eta Joxe Antonio Oñarteko zaharrenarekin ari ziren hizketan:

– Ta hik nola dakik hori? –aitak.

– Presoek esan digutelako –dio Oñartekoak.

Isilune labur baina gogor baten ondoren, nik:

– Zer da, ba?

– Zuk ez duzu ulertuko –amak.

Orduan Antoniok, baxu-baxu, zera esan dit:

Joxe ta Joxe Luis, herenegun, Iruñeako kartzelara eramane omen zituzten, ta bart Joxe Luis erahil egin dute, fusilatuta.

Egia esan, nik ez dut egoera honetaz dena ulertzen, baina argi daukadana zera da: lehengusua betiko galdu dudala.

Jada, bi aste pasa dira berri latzaren jabe izan ginenetik, eta denak gaude oraindik goibel.

Kaixo anaia maitea:

Asko sentitu dugu etxean Joxe Luisen heriotza.

Hemen ere gauzak okertzen doaz, orain gauez jasotzen dugu uzta, bestela Francoren militarrek jasotakoaren zati handi bat kentzen digute, beraz, gu bildutakoa mendian ezkututzen saiatzen gara. Atzo bertan, lanean genbiltzala tiroka hasi zitzaizkigun eta korrika alde egin behar izan genuen.

Herrian gose handia ikusten dugu. Jende asko etortzen zaigu jan eske, baina lastima, guk ere ez dugu denontzat lain.

Lehengusuaren heriotzaz jabetu ginen egunean, gure gelako leihotik izeba ikusi nuen, berak gainean zerama-

tzan ohizko trapuek inoiz baino heze eta hotzagoak ziruditen. Eta bere begien distirak tristura islatzen zuen. Momentu hartan irudi hura betiko gordeko nuela konturau nintzen.

Egia esan, galdera ugari dauzkat gerra honi buruz, baina, etxean ez dizkit inork erantzuten, beraz, zu etortzen zarenean gauza asko izango dituzu erantzuteko, adibidez, zergatik hil dute Joxe Luis? Zer egin zuen, ba, berak?

Besterik gabe.

Musu handi bat eta agur beroenak zure arrebaren partetik.

Maria Dolores

Goizean irratiak gerra bukatu dela esan du. Nire etxean denak triste jarri dira, zeren, borroka egunetan hainbeste sufritu ondoren, gerra bukatu eta etsaiek irabazi dute, honek sufrimendu urteak datozela esan nahi du. Gainera, guda bukatu den arren goseak jarraitzen du nagusi. Eta senideren bat galdu dugunoi hutsune hori betiko geratuko zaigu.

Gerra bukatu zenetik bi hilabete igaro dira eta, gaur esan digutenez, etzi anaia kartzelatik atera behar dute. Amak eta biok joan behar dugu Iruñeara, bere bila.

Hemen gaude, Iruñean. Gotorlekua baino beherago dagoen herrixkako tabernan sartu gara, berehala etxeko nagusia hurbildu zaigu bioi. Honek amari begiratu eta ea preso baten zain gauden galdetu digu, amak baietz erantzun dio, errezeloz. Konfidantzaz, tabernariak dirurik ba dugun galdetu digu. Guk, harrituta, etxera bueltatzeko jus-

tua dugula erantzun diogu. Begira geratu gatzazkion bitartean, bera barrara joan da eta dirua eman digu, taxi bat hartu eta kartzelara gure presoaren bila joateko; esanez, bestela, kartzelariak presoak kaleratu ondoren tirokatu eta hil egiten dituztela, ondoren, aitzakitzat, presoek ihesari ekin diotela esaten dute.

1998ko ekainaren 13a

Kaixo Jone maitea:

Orain dela bi aste ikusi zintudan arren, idatzi egiten dizut, triste nagoelako gaurko egunean. Badira 50 urte, Joxe Luis, nire lehengusua zena, hil zutela eta hori ez zait inoiz ahaztuko. Egun hau betiko edukiko dut bihotzean.

Gogoan dut, baita ere, gaur zortzi 15 urte beteko direla zu etxetik kanpo joan zinenetik. Zure ihesaldiaren ondorengo beldurra eta egonezina etsipena bihurtu da preso zaudenetik...

Zure osaba Joxe nire alboan dago azken urte hauetan. Beti gogoan zaitu, bere bizipen latza burura dakarkiozulako.

Orain, berari begira nagoela, zure bila joateko irrikatzen nagoela konturatzen naiz. Ea bera gureganatzearekin lortu nuen poza zure etorrerak gainditzen duen.

Musu handi bat eta agurrik beroenak amaren partetik.

Maria Dolores

Itsu zulora

Maitane Mendikute Zulaika
Arreiturre institutua
Elgoibar

– Ez zekinat ikusi gaituzten edo ez, baina... mugi! Ez hadi hor geratu!

– Ezin diat gehiago!

– Nola ezetz! Azkar! Eta ez ezan ahotik alferrikako indarrik galdu!

– Harrapatuta gaudek! Ez zegok erremediorik!

– Isiltzeko ez al dinat, ba, esan? Hire jardunaz nazkanazka eginda nagon.

– Ni berritxua izango nauk, baina txakurren zaratarik ez al duk, ba, entzuten?

– Kaka zaharra! arrazoi dun! Txakur zaunkak, bai! Laster etorriko ditun jabeak ere.

Eta hantxe geratu ginen, txintik ere esan gabe. Eta bertan harrapatu gintuzten, ordu asko baino lehen. Ez zitzai-gun, ez, askorik falta Frantziako muga zeharkatu eta aski ongi bizi ahal izateko. Baina orduko hartan ez zigun zortetak batere lagundu. Neuk ere ez nuen, agian, ahal nuen guttia eman. Oinak gogortuta nituen, zangoak nekatuta eta sa-

bela erabat hustuta. Handik aurrera ohartu ginen gure ilusio guztiak pikutara bidali behar genituela, hurrengo urteotan une oro paisaia berbera izango baikenuen begien aurrean, eta ilusio haiek guztiak ez ziren benetako bihurtuko.

– Eta orain zer? Nora eramango gaituzte?

– Ez zekinat, ba! Egindakoaren ostean... biok separatuta egon beharko gaitun hogeitun bat urtean, eta geure herrietik urruti. Baina zergatik galdetzen didan hori, hik nik baino hobeto dakin eta!

– Bueno, bai. Baina kristoren beldurra zeukeat, eta tontakeriak galdetzen hasi nauk!

– Trankil, oraindik ez gaitun eta bananduko.

Oraindik ilargitik jaitsi gabe nengoen. Begiak erabat lausotuta nituen, eta ez nuen sinisten gertatzen ari zitzaiguna benetakoa zenik; haragizkoa, hezurrezkoa, bene-benetakoa. Aitor alboan nuen, baina ez nintzen jabetzen, edo ez nuen jabetu nahi, laster hain ondoan izango ez nuenik. Itsututa nengoen, eta ez nuen ia pentsatu ere egiten. Apika, ikara handi hura zen burutapen guztiak izozten zizkidana.

Begietako makarrak guztiz kendu aurretik etorri zen epaitu gintuzten eguna, eta bakoitzari 18 urteko gartzela zigorra ezarri zigutenekoa. Une hartan ez nekien malkoak isurtzeari ekin, edota barre algaraka hasi. Jada, ez zegoen atzera bueltatzerik. Egindakoa egina zegoen. Zirudienez ahantzita genuen txikitako umekeriak noraino iristen ziren, eta orduko hartan, bihurrikeria izateko handiegia zen gaiztakeria burutu genuen.

Gogoan dut Aitor agurtzeko ordua ere segituan etorri zela. Begiak itxi eta, ireki nituenerako, urrun zegoen. Be-

rari Gaztela aldera joatea suertatu zitzaion, eta niri aldiz Galiziara. Nire hogeita lau urte hauetan beste behin baino ez dut egin horrenbeste negar. Oso une penagarria, amets gaiztoa legez.

Arin eman nuen zulora sartzeko lehen urratsa. Arinegi, gauza onerako. Barruan nengoela konturatu nintzen pauso hura bi mundu desberdinen arteko jauzi handi bat zela. Harresiaren alde batean mundu aske eta libre bat zegoen. Horma hura zeharkatuz gero, berriz, dena zen ilun, zorigaiztoko. Eta niri alde hori egokitu zitzaidan, edo neuk bilatu nuen, neure kabuz.

Ordutik hona, segunduak, orduak, asteak... igaro dira. Baina toki hau geroz eta gutxiago dut gogoko. Ez da ez denbora askorik behar leku honen eta hemengo jendearen berri izateko. Badira ni bezalako euskal presoak ere, eta jatorrak dirudite. Dena behar da hemen, egonaldi astun hau arintzeko.

Hala ere, nire barruko samin hau ez du ezerk ere sendatuko. Aitorrengandik urruntzeak zauri handia ireki dit bihotzean. Ama, anaia eta beste lagunik eta etxeko oro alboan ez izateak ere hutsune handia sorrarazten dit. Dena den, noizbehinka etortzen dira ni bisitatzera, eta benetan eskertzen diet. Baina odol gehien jariatzen didan zauria beste bat da. Aita. Bi mundu hauetatik at joan aurretik mesede bat baino ez baitzidan eskatu: "Ihart, borroka ezazu gure herriaren askatasunaren alde, eta ez ezazu Euskal Herria zapal dezaten utzi". Eta ni ez naiz eskari hori ongi betetzeko gai izan. Egia esan, ez nuen aitak esandako hori oso aintzakotzat hartu. Aitorrek eta biok geneuzkan ideiei jarraitu genien, besterik gabe. Inoiz huts egingo ez genuelakoan. Loratu berri den larrosa baten hainako freskotasu-

na nuen orduan, eta bizitzeko izugarrizko grina. Espetxe-
ratuengatik eta gure herriarengatik egiten genuenak jolas
hutsa zirudien. Baina gogotik damutu naiz egin dudan
hankasartzeaz. Aita! barkatuko ote didazu noizbait?

Egun berri bati hasiera eman diot. Eguzki printz indar-
tsuak sartzen dira nire zeldako leihatilatik. Ezin diet so
egin. Traba egiten didate begietan. Dudan logurearengatik
izango da. Bart ez dut batere ongi egin lo. Ez dut begirik
itxi, aitaren azken hitz haiek nire kazkezurretik uxatu
ezinda. Eguerdi ingurura funtzionario batek gutun bat
eman dit. Hemen daramazkidan lau hilabete hauetan esku-
titz asko bidali dizkirate denek, eta neuk ere bidali ditut.
Baina gaurko honek, berriro ere piztu dit Aitorrenganako
maitasuna. Eta badakit oraindik berak ere maite nauela.
Olerkitxo bat bidali dit, eta ez dago batere txarto berak
idatzia izateko. Baina bai zera! Geroago jabetu naiz Sa-
rrionandiarena zela. Berdin dio, gustukoa dut!

*Goizean goiz jaiki naiz
eta leiho parean eseri
begira nago zure begiak
ea non diren ageri
baina hormetan zehar ez diot
antzik ematen ezeri.
Zure begiak hurbil banitu
haietan nenbilke igeri.*

Egunak gero eta luzeagoak egiten zaizkit. Badirudi or-
duek hirurogei minutu izan beharrean, ehun dituztela.
Egunek hogeita lau orduren lekuan, berrogei. “Sarri”-ren
liburuxka bat dut eskuetan. “Gartzelako poemak” delakoa.
Aitorrek hortik hartu zuen niri idatzitako poematxo.
Olerkiak irakurriz barru-barruan dudan har hau hiltzea da

nire nahia. Baina ezinezkoa da. Har horrek Aitor ere jan baitu. Orain bi ebaki handi dira sendatu beharrekoak. Nire mutilak, edo mutila zena uste nuenak, kale egin dit. Pasa dira bi hilabete, eta ez dut bere beste gutunik jaso. Ez dakit zenbat eskutitz idatzi dizkiodan nik, eta berak, zer? Ez al da ba tristea?

Egia esan, inozo samarra ere izan naiz azken hilabete hauetan. Nola maiteko nau ba! Nire erruz sartu zuten Aitor zuloan. Nik, neure aitari egin ziotena ikusita, eta berak egin zidan eskaera entzunda, ETAn muturra sartzea erabaki nuen. Eta nire mutilak ez zidan sekula bizkarrik eman, ahal zuen denean lagundu zidan, eta horra hor, orain jaso duen ordaina.

Denbora gehiago igaro da Aitorren berri izango ote dudan esperoan. Baina ez. Amak, anaiak, lagunek... denek idazten didate, berak izan ezik. Noizean behin etortzen da norbait hona. Zain egoten naiz funtzionarioek atea noiz zabalduko, eta bisita dudala esateko.

Ezin dut horrela jarraitu. Egunak badoaz, eta Aitorrentzat ez naiz esistitu ere egiten. Ez dit egindakoa barkatu nahi. Eta aitak ere, ez dakit. Eta ez dut jakingo, beraren albora joaten ez banaiz bederen. Ximeltzen ari den larrosa baten pare ikusten dut neure burua. Petaloak horitzen ari zaizkio. Ur tanta batzuk behar ditu denbora gehiagoz bizi-rik irauteko. Ongarririk ez du bere sustraietatik zurrupatzten, eta ez zaizkio erleak lehen bezala hurbiltzen. Jada, ez du usain gozorik, eta ez du ia ezer erakartzen.

Badakit etxekoei eta lagunei inporta natzaiela. Inoiz baino garbiago islatzen didate hori. Baina ez da nahikoa nire asmo hau bertan behera uzteko. Aita! Ez dakit inoiz barkatuko didazun, eta hori argitu nahi dut zure ondora jo-

anda. Zelda honetan, inguratzen nauen mundutik at sentitzen naiz. Zugana joaten banaiz behintzat, alboan izango zaitut, eta nire oinazea ez da hemen bezain handia izango.

Eta malkoak isurtzen hasi naiz, larrosa ximelduari amiltzen zaizkion azken petaloak bailiran.

Funtzionario batek Iharten zeldako atea irekitzen du, bisita bat duela esateko asmoz. Oraingo honetan Ihartengana etorri dena, ez da bere ama edota anaia izan. Aitor da, bere neska ikusteko gogotsu. Espetxean bi egunerako baimena eman diote, eta Iharten gutunik iristen ez zaionez berarengana jo du. Tamalez, funtzionario hark ezin izan dio berri pozgarri hura zelda hartako neskari eman. Berandu da.

Sineskeriaren egutegia

Aingeru Sarriugarte Lasarte
Elexalde institutua
Galdakao

Otsailaren 19a

Astelehena

Gaueko hamar eta erdiek jo berri diton eta beste bete-beharrik gabe hiregana natorren, egunero edo, behintzat, ia egunero bezalaxe. Gaur ez zaidan ezer berezirik gertatu, baina aspertu egiten naun eta hemen naukan.

Aita oraindik ez dun lanetik etorri eta ama sukaldean zagon etxeko lanak egiten. Ama beti aritzen zaidan deika lagun diezaiodan, baina nik egunero esaten zionat hamabi urte baino ez ditudala; eta ezin naun egunero etxean preso egon, berak egiten duen legez. Askotan gelditzen naun pentsatzen ea zer ote duen amak, egunero etxeko hormen babespean geratzeko. Apenas din lagunik eta beraiekin geratu beharrean etxean geratzen dun.

Oraintxe sartu berri dun aita atetik eta berehala gorde haut burusi azpian ikus ez hazan. Etorri orduko ene logelara sartu dun eta ea nola dagoen gure etxeko printzesa galdetu zidan. Nirekin hori egin ondoren laster joan dun amarengana gauza bera egitera. Aita, bai, aita bai dela per-

tsona maitakor eta sentibera. Sekula ez bezala maite gaitun eta geuk ere hala maite dinagu. Oso familia elkartua gaitun eta mundu honetan ez dun jaio gu bananduko gaituenik.

Gabon.

Otsailaren 21a

Asteazkena

Hemen naun, berriz ere, hemen kontu kontari. Gaurko hau nahiko egun ezohizkoa iruditu zaidan, oso emozio ezberdinak sufritu baititut. Batetik, matematikako azterketa suspenditu eta, bestetik, herriko ipuin lehiaketa irabazi dudala komentatu zidan irakasleak. Ohi den legez, lehendabizi gurasoei esan zienat matematikako azterketarena eta, banekien bezala, ez zien inolako graziarik egin, baina gero lehiaketarenak baretu ditin korronteak.

Beste alde batetik, gaur amaren urtebetetzea dun eta amak nahiko itxura eskasa erakusten din, atzo berriro istripu bat izan baitzuen, bere lantokia dei diezaiokegun sukalde horretan. Begi bat ubelduta din eta masailezurra atera egin omen zaion. Hori dela medio atzo egun osoa eman ziaten ama eta aitak ospitalean. Eskerrak ematen zizkionat askotan aitari. Beragatik ez balitz ez zekinat nik zer egingo genuen amak eta biok. Gaur bertan sekulako perla-lepokoa oparitu zion amari urtebetetzea dela eta, berak egiten duenaz gain amak ez zion asko esker-tzen.

Behin eta berriz erortzen dun nire ama eta nik ez zekinat zer pentsatu, ez ote da makaltasunaren esklabu; dena den, normala izan beher din, ez baitun trastez beteriko

gela horretatik irteten eta bertan edonor eror liteken, bai aulki batekin topo eginez edo edozein elektragailutako kablea zapalduz.

Beno, bazirudin berandutu egin zaidala eta oraintxe etorriko dun ama bi musu eman eta ea loak hartu nauen ikustera, gauero egiten duen antzera.

Gabon.

Otsailaren 22a

Osteguna

Gaurko egun hau ez dun normala izan. Sekulako gauza arraroak gertatu ditun. Goizean goiz jaiki naun eta hemen ez zegonan inor ere. Gainera gosaltzen nengoela lurrera begiratu eta bola zuri bat ikusi dinat, jakin-minez altxatu naun eta hara non ikusi dudan atzo aitak amari oparituriko lepokoaren perla bat.

Ez ninan ezer ulertzen, baina hor ez dun dena amaitu; etxetik irteteko orduak eman din eta ama ez zunan heldu. Zerbait ulertzekotan aitaren lantokira deitu dinat, baina bertan gauza bat sortu zaiola eta handik irten behar izan duela esan zidaten.

Pixka bat lasaiago eskolara joan naun eta etxera bueltatutokoan han zegonan, jadanik, ama. Berarengana hurbildu eta ea non egon den galdetu zionat eta berak ez arduratzeko esan zidan, lepokoa puskatu eta bitxitegira joan dela.

Zeharo lasaitu naun orduan eta, gauzak hartuta, irten egin naun etxetik ingelesera joateko.

Orain ohean naun aita noiz iritsiko zain, baina, tira, ez dun iristen eta ez naun hemen bihar arte itxaroten egongo.

Gabon.

Otsailaren 23a

Ostirala

EEEEEEEEZZZZZZZZZZ!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!! Joder, bizitza bete-betea puskatu zidaten, ez zagon eskubiderik adinik one-nean ero baten buruhausteengatik neska baten bizitza puskatzeko.

Jakina, orain ulertzen dinat guztia, atzo nire “amak”, bere paranoiei kasu eginez eta, bere alabaren bizitzan fisik pentsatu gabe, goizetik polizia-etxera joan eta aitak, ziurtasun osoz, burutu ez zituen tratatu txarrak emateagatik salatu egin zinan. Orain ulertzen dinat zein betebeharrak zuen aitak: ez zeukanan betebeharrak, baizik ero baten ilusioez baliatzea, orain kalabozoa zain zeukanan.

Aitak ez duela inor jo esaten eman dinat egun osoa; baina, jada, ez dinat ahotsik ez ezer jarraitzeko.

AITAK EZ DIN INOR JO!!!!!!

Otsailaren 24 a

Larunbata

Egun hau ene bizitzako luzeena izan dun, dudarik gabe, ez dinat minutu bakar bat lo egin eta 24 orduak eman diti-nat burua astintzen. Edozer gauzak ekartzen zidan aitaren oroitzapenen bat, bai onak eta bai txarrak. Kontua dun aita buru barnean dudala.

Ez zakinat zergatik sentitzen naizen gaur pixka bat helduago, hau da, emakumetu naizela iruditzen zaidan.

Eguerdian ama etorri zaidan bazkaltzeko deika, baina entzun ez banu bezala egin dinat; orduan berak, nire ustez, onartu din eta joan denetik negar zotinak baino ez ditinat entzun. Ez dinat ulertzen ero horren jokabide zentzugabea. Ez zakinat niri min egiteko egiten duen edo zer.

Bihar aita ikustera joango naun goizean-goizetik, zentzugabe horri ezer esan gabe. Ea nola dagoen aita ikusi nahi dinat, eta nik sinestu egiten diodala esango zionat, eta hau dena argitu arte ez naizela geldituko.

Arratsaldeko zazpi eta erdiak diren arren loak hartu beharko naun, bihar goizaldean esnatzeko asmoa baitinat.

Otsailaren 25 a

Igandea

Gaur konturatu naun, benetan, gurasoek bizitza osoan engainatuta izan nautela, ni ez naun inoiz inolako familia banaezinean bizi izan, gurea ez dun inoiz ezta familia izatera ailegatu. Nire gurasoek betidanik gorrotatu ditenekar, baina nik orain ulertzen ez dudana dun ea zergatik ezkondu eta eduki ninduten; ezbeharra izan ote nintzen?

Gaur aitak azaldu zidan dena, berak duela errua eta alkoholen menpeko robota izan dela esan zidan eta horrek aginduko balio bezala jotzen zuela ama. Ni guztiz konbentziturata nengonan ama zela errudun bakarra, baina oker nengonan, amak ez zeukanan inolako errurik.

Egia esan, nik ez dinat uste aita hain gaiztoa denik, oso gizon ona dun, baina manipulaturik zegonan, manipulaturik.

Orain bizi berri bat hasi beharko dinat. Orain, adin berberarekin, baina helduagoa naun. Amarekin batera biziko naun, baina aita epaileak askatasun probisionalean utzi din eta ni bisitatzera etorriko dun astean behin. Hori bai, bigilantzia pean izan beharko din.

Aita ez dun hain gaiztoa!!!

Betiko maitasuna

Claudia Gonzalez Montero
Koldo Mitxelena institutua
Vitoria-Gasteiz

JULEN

Nire psikiatrak esan dit nire istorioa idatziz gero, errazago egingo zaidala gero nire arazoari aurre egitea. Eta nahiz eta asko pentsatu, arrazoi duela uste dut. Eta hemen nago, boligrafoa hartuta eta nondik hasi jakin gabe. Uste dut 1989. urteko uda kontatu behar dudala. Nire izena Julen da eta orain 28 urte ditut. Nire bizitza apurtuta dago nire bihotzarekin batera, eta bizitzeko arrazoi bakarra daukat. Orain hasiera eman diezaioket nire istorioari.

“17 urte nituenean buruan ez neukan beste ezer egiteko lagunekin egotea baino. Eta uda hartan, Bartzelonara joatea erabaki genuen Jonek, Xabik, Aitorrek eta nik. Gurasoen baimena lortu eta abuzturako atera genituen autobuseko bileteak. Han, hotel batean egoteko asmoa geneukan, baina hoberena eta merkeena hango apartamentu sinple bat hartzea zen.

Eta abuztuko lehenengo egunean heldu ginen. Apartamentua oso txikia zen eta nahiko iluna. Egongela eta bi logela zeuzkan. Noski, sukalde txiki bat egongelan bertan eta komun itsusi eta itxi bat. Baina ez ginen ohartu. Baka-

rrik egoteko ideia geneukan buruan eta ez non egingo genuen lo. Hamarrak inguruan atera ginen kalera buelta bat ematera eta orduan ikusi nuen. Atari dotore batetik neskatxa beltzaran bat agertu zen. Bere ile luzea eta kixkurra airearekin batera mugitzen zen. Orduan, bere begi beltz eta handi haiekin begiratu eta esan zidan:

– Aizu, mutiko!! Paretik kenduko zara edo gaua horrela pasatzea erabaki duzu?

Erantzun baino lehen, 1'60 metroko neska argal hark bultza egin zidan eta lurrera jausi nintzen. Bai, maiteminduta nengoen. Bere irribarrea eta bere begiak betiko nire buruan egongo zirela konturatu nintzen.

Hurrengo goizean, hondartzara hurbildu eta uretara sartu ginen heldu bezain laster. Nahiko beteta zegoen, baina ura epel-epel eta garbi-garbi aurkitu genuen. Han nenbilela, itoa-rena egiten, bat-batean izugarritzko hodei beltza hurbildu eta nire bizitza osoan edan dudan ur-gazi trago luzeena hartu nuen. Orduan, ur azpian nengoela nire bizitzaren bukaera ikusi nuen. Ziur nengoen hilda nengoela, eta hildakoen munda ezagutu ahal izateko nire begitxo urdin hauek ireki eta... **HAN ZEGOEN HODEI BELTZ HURA!!!** Baina hodei hark begi handiak zituen, niri ezagunak egiten zitzaizkidanak..., ez, ez zen hodei bat, aurreko gauean ikusi nuen neska hura zela konturatu nintzen. Bere irribarrea erakutsi eta korrika hasi zen. Burua altxatu eta hondartzan nengoela ohartu nintzen. Bai, bizirik nengoen. Eta neska polit hark salbatu ninduen. Edo hori uste nuen. Nire ingurura begiratu eta lehen ikusitako itsasoko ura han zegoen. Hondartza amaieran txiringittoa eta, aurrerago, eskubaloian jokatzen ari zen jendea ikusi nuen. Dena berdin zegoen, gauza bat izan ezik. Neska berriro desagertu zen. Jon hurbildu zitzaidan eta esan zidan:

– Zertan ari zara? Izugarrizko neska ondoan duzula, joaten uzten diozu. Zu tontoa zara, mutiko!

Konturatu nintzen Jonek arrazoi zuela. Eta, gauean, neska taberna batean zegoela, bere ondora gerturatu nintzen. Ordu-rako esan beharrekoa guztiz ahaztuta neukan. Benetan polita zen. Oso polita. Eta beti bezala, bera hasi zen hizketan:

– Zer, gustuko duzu nire ondoko eserlekua?

Bere ondoan nengoen eserita, berari begira, eta ez nintzen ohartu. Orduan bai hitz egin nuela:

– Aupa. Julen dut izena eta barkatu hemen esertzea, baina gaur goizean hondartzan bizia salbatu didan neska-ren izena jakin nahi nuke.

– Nigatik diozu? –esan zidan– Nire ustez urperaketa bat egitea ez da guztiz bizitza salbatzea, ezta?

– Ah bai? Eta nork gerturatu ninduen hondartzara? –Gal-detu nion nahiko harrituta.

– Urak berak. Izugarrizko bueltak eman zenituen –esan zidan, irribarrea galdu gabe.

– Beno, orduan jakin nahi dut nire hiltzailearen izena.

– Montse. Eta etxera noa oranintxe bertan.

Eta pentsatu barik, esan nion:

– Zurekin noa.

Bidetik gindoazen, barrezka eta lelokeriez hitzegiten. Bere atarira heldu ginen eta berak eskerrak eman zizkidan etxera laguntzen joateagatik. Orduan, bat-batean, ni ohartu baino lehen, izugarrizko muxu gozoa eman zidan. Bere ezpain gozoak kentzeko momentua heldu zenean, ez nion

utzi eta orduan nik muxukatu nuen. Baina bera atarian sartu eta esan zidan:

–Bihar hondartzan ikusiko dugu elkar.

– Ez –esan nion–, gaur gaueko hiruretan.

Eta joan egin nintzen. Ez nekien agertuko zen, baina itxaropentsu gaueko hiruretan han nengoen ni. Bero handia egiten zuen. Oso urduri nengoen, gehien bat bera agertu zenean.

– Hemen nago –esan zidan–. Ezin nuen huts egin.

Eta han bertan hasi ginen muxukatzen, bigarren aldiz. Lurrera erortzen utzi ginen eta, orduan, berak bere laranja koloreko kamiseta motz hura kendu zuen. Azpian bikinia zeukan jantzita, baina ulertu nuen ez zela uretara joango. Edo bai. Eskutik hartu ninduen eta nire arropa kendu zidan. Gero bere bikini horia kendu eta biok, biluzik, uretara sartu ginen. Bere gorputza laztantzen hasi nintzen. Izugarria zen. Baita berak neurea ere. Eta horrela egon ginen bi orduz. Azkenean, berak aurrera egin nahi zuela esan zidan eta, beldurrik gabe, uretan izan zen gure lehenengo aldia. Gau hura izugarria izan zen eta ezin izango dut inoiz ahaztu. Eguzkia gure atzetik irteten ari zen eta ur gazi eta epel hartan geunden biok besarkatuta. Zenbat maite nuen esan nion, etengabe, eta berak gero eta gogorrago heltzen zidan. Baina joateko ordua heldu zitzaigun eta bere atarira joan ginen, eskutik helduta. Ez genuen nahi momentu hura bukatzea. Ez nuen nahi galdu eta ziur nengoen joaten uzten baldin banion, ez nuela berriro ikusiko. Baina heldu ginean izugarria izan zela eta nirekin atera nahi zuela esan zidan. Maite ninduela guztiz eta ez joateko eskatu zidan. Baina berandu zen eta apartamentura itzuli behar nuela esan nion. Hura guztia ezinezkoa iruditzen zitzaidan.

MONTSE

Abuztuan ezagutu nuen. 1989. urteko abuztu madarika-tu hartan. Ia bakarrik nengoen Bartzelonan. Bi lagun soi-lik nituen hiria, gurasoek erabaki zutelako ekainean beste toki batera joatea uda pasatzera. Baina hondartzan Julen ezagutu nuenean, nire uda aspergarri hura aldatu egingo zela pentsatu nuen.

Etixerako bidean proposatu zidanean gauean berarekin hondartzara joatea, ezin izan nion ezetzik esan. Etxetik ihes egin nuen bi ordurako. Eta han bizi izan genuena ez dugu inoiz ahaztuko. Esan beharra daukat asko gustatu zitzaidala. Izugarria izan zela. Baina bere ondorioak ere izugarriak izan ziren. Ez dakit egun hartan izan zen edo beste batean, baina nire bizitza orduan desegin zen. Bera abuztuaren 30ean Bilbora itzuli zen, ni hemen bakarrik utzita. Beraz, ahaztea erabaki nuen. Baina 10 urte beranduago, berriro nirekin topo egin zuen. Bere erruz bizi izan nuen amets gaizto hura berriro bizi nuen. Julen nire atzetik zebilen eta ni berarengandik ihes. Egia jakin zuenean, okerrago izan zen, jasanezina. Errudun sentitzen zen, eta bere bizitzan sartzeko eskatu zidan. Berak berdin jarraitzen zuen. Bere begi txiki urdin haiekin eta bere ile luze eta errubioa motots batean hartuta. Oso altua zegoen eta bere gorputza landuta ikusi nuen. Izugarrizko gizona zen. Eta 27 urterekin oraindik bizitzeko gogoia zuen, ez nik bezala.

JULEN

Hamar urte itxaron ondoren, Bartzelonara abiatu nintzen lan kontuak zirela eta. Eta denda xume batean, Montse ikusi nuen. Idazten genion elkarri, harik eta bere eskutizik jaso ez nuen arte. Ondoren, nik bost bat idatzi nizkion,

erantzunik lortu gabe. Arrazoia, ez nekien. Berarengana hurbildu nintzen agurtzeko, baina ez zen betikoa. Bere irribarrea, bere alaitasuna eta, horrekin batera, bere edertasuna galdu zuela konturatu nintzen. 26 urteko emakume triste eta zahartua zen. Ez ninduen ikusi, eta berarekin oraindik ez hitz egitea erabaki nuen. Behintzat, dendan ez.

Arratsaldean bere gurasoen etxera hurbildu nintzen eta, han, gure lehenengo muxua gogoratu nuen. Bost minutu lelo aurpegiarekin eman nituen. Deitu nuen eta, nire harridurarako, Montse han ez zela inoiz bizi izan esan zidaten.

Hurrengo egunean dendara hurbildu nintzen, eta hutsik zegoelarik, berarekin hizketan hasi nintzen:

– Aupa Montse. Julen naiz.

Izututa begiratu zidan eta, bere begietan, beldurra eta tristura ikusi nuen. Bakardadea. Ez ziren uda hartan zituen begi beltz haiek. Begi alai haiek.

– Joan zaitez hemendik. Ez zaitez niregana hurbildu. Min gehiegi egin didazu, orain berriro hori bizitzeko. Utz nazazu bakean. Entzun didazu? JOAN!!

Harrituta, alde egin nuen. Ez nuen horrelako jarrera espero bere aldetik. Zer egin nion nik? Ez nuen ezer ulertzen. Baina erabaki bat hartu nuen: arazo hura konponduko nuela. Eta dendatik atera zenean, atzetik joan nintzaion.

Etxe zahar batera abiatu zen. Oso toki itsusi eta pobrea zen eta, han, etxe miserable hartan sartu zen. Etxe hartara hurbildu nintzen eta deitzeko prest nengoenean, leihotik, ume bat ikusi nuen. Ume errubio eta begi urdinekoa; 9 urte inguru edukiko zituen eta, orduan, Montse ikusi nuen. Niri

begira zegoen, bere begietan gorroto izugarria zegoen eta atea ireki zidan.

MONTSE

Han zegoen, nire aurrean, haurrari begira. Atea ireki eta sartzeko esan nion. Zer nahi zuen galdetu nionean, esan zidan:

– Zer egiten duzu hemen? Eta ume hori?

Hoberena istorio osoa kontatzea zela pentsatu nuen. Baina nire etxea ez zitzaidan toki aproposa iruditu eta kafetegi batean gelditu nintzen berarekin, hurrengo eguneko bostetan. Orduan bai etxetik bota nuela! Esan nion bakean uzteko ni eta nire umea. Bilbora itzultzeko eta bere bizitza egiten jarraitzeko.

Hurrengo egunean, abiatu nintzen kafetegi hartara eta, han, mahai batean eserita ikusi nuen. Berarekin eseri eta esan nion:

– Zer da jakin nahi duzuna?

– Guztia –esan zidan– kontatu guztia.

Eta, bi kafe eskatuta, istorioa kontatzen hasi nintzen:

– Ezagutu zintudan uda hura niretzat izugarria izan zen. Baina zu joan eta astebetera konturatu nintzen haurdun nengoela. Egiatzatzeko medikuarenera joan nintzen. Egia zela esan zidan. Orduan, horrek ekarriko zituen ondorioez eta gurasoei esateko eraz ere larritzen hasi nintzen. Hilabete pasa ondoren esateko ordua heldu zen. Gurasoek ez zuten ulertu, eta umea galtzeko agindu zidaten. Nik ideia hori burutik kentzeko esan nien. Aitak erantzun zidan:

– Ez baduzu ume hori galtzen, ez zara familia honetako izango.

Aitaren izena galdetu zidaten eta, zu zinela esatean, okerrago hartu zuten. Zure eskutitz guztiak apurtzen zituzten eta ez zidaten zuri idazten utzi. Arazoa zen nik maite zintudala, asko, gainera. Eta aitari esan nion. Honen erantzuna izugarritzko zaplastekoa izan zen. Mehatxu egin zidan, esanez, norbaiti esaten banion, zuri bereziki, etxetik botako ninduela. Nik Anari kontatu nion...

– Nor da Ana? –galdetu zidan.

– Lagun bat. Ez moztu, mesedez. Beno, nik Anari kontatu nion eta etxetik ihes egiteko esan zidan. Zurekin Bilbora joateko. Baina nik ezin nuen zure bizitza osoa apurtu. Gainera ez nekien maite ninduzun eta, agian, guztia nahastuko nuen. Orduan aita ohartu zen Anari kontatu niola, eta esandakoa bete zuen. Nire burua bakarrik ikusi nuen Bartzelonan, 16 urte nituen eta haurdun nengoen. Zer egingo nuen? Behintzat, lana baneukan. Denda hartako emakumea oso jatorra zen eta berarekin bizitzeko aukera eman zidan. Ez zidan ordainduko, baina etxe bat eman zidan ni eta nire umearentzat. Baina 18 urte bete nituenean, Mariak, hau da, dendariak, mesedez etxetik joateko esan zidan. Ez zuen jasaten umearen negarra eta bakean bizi nahi zuen. Lana mantendu zidan eta soldata ordaintzen hasi zitzaidan. Bizi naizen etxea aurkitu nuen eta, orain arte, hemen bizi izan naiz. Zu agertu zinenean, bizitako guztia, bizi dudan beldur eta bakardade guztia, nire burutik pasatu zen. Orain badakizu, ume hori, Unai, zure semea dela.

– Ezin naiz honela gelditu, Montse. Ezkondu zaitez nirekin. Dirua daukat eta oraindik maite zaitut.

– Ez, Julen. Badakizu gertatu dena. Orain utzi bakean, utzi bizitzen. Ez naiz zoriontsua, baina zurekin ere ez. Nire bizitzak ez dauka zentzurik. Bakarrik Unai daukat. Ez utzi galtzen.

JULEN

Bilbora itzuli nintzen, nire maitea bakarrik utziz Bartzelonan. Gure amodioaren froga Unai zen. Eta ezin genuen elkarrekin disfrutatu. Beldurrez itzuli nintzen. Banekien ez nuela inoiz ikusiko, baina onartzea erabaki nuen. Gurasoei ez nien ezer esan, baina zeozer gertatu izan zela konturatu ziren. Dirua bidaltzen nion hilean behin. 10.000 pezeta inguru. Lagundu nahi nion. Nire semea zen.

Eta horrela utzi ninduelarik joan zen. Orain dela 5 hilabete Anak deitu egin zidan eta esan Montse hilda aurkitu zutela. Bere buruaz beste egin zuela. Umearen bila joan nintzen Bartzelonara eta Anak zeukan. Nire eskuetan ipini eta nirekin egon behar zuela esan zidan. Eta hemen nago, istorio hau idazten. Bilbon bizi naiz Unairekin eta nire amak zaintzen laguntzen dit. Neska batekin ateratzen nabil, Irene izenekoa, eta maite dut. Berak ere maite nau, eta Unai ere bai. Oso ondo konpontzen dira. Istorio osoa daki eta harrituta gelditu zen kontatu nionean.

Zoriontsua naiz. 28 urterekin, zoriontsua naiz. Baina Montse beti gogoratuko dut. Beti gogoan izango dut 1989. urteko uda hura.

MONTSE, EZ ZAITUT INOIZ AHAZTUKO

Bizitza txuri beltzean

Haize Maiztegi Landa
Txingudi ikastola
Irun

Beti bide bera. Bide argia hasieran, iluntzen doa. Etxetik institutura, institututik parkera, parketik tabernara eta tabernatik etxera. Ezer ez da aldatzen. Beti jende berarekin topo egin, hitz egin, entzun. Bide honetatik irten gabe. Nora eramango nau?

Gero eta ilunagoa edo itxiagoa egiten zitzaidan bidea.

Aita nik hamabi urte nituela hil zen. Auskalo non harapatuko zuen kabroi zerri hark hiesa! Ama eta bioi bizitza jasangaitza egin zigun. Aita bizi zenean ez zitzaidan etxean egotea batere gustatzen, beti berandu iristen saiatzen nintzen eta iristen nintzenean, segituan, nire gela ilunera joaten nintzen eta musika “topean” jarri, ezer ez entzuteko. Halere, aitaren jipoietatik ez nintzen askotan libratzen, hori baitzen berak barrena husteko zuen modua.

Aita hil zen eguna izan zen amak maite ninduela esan zidan aldi bakarra: “Gehien maite nituen bi pertsonetatik bat joan egin zait. Zu bakarrik geratzen zatzaizkit. Maite zaitut seme!”.

Ni ez nintzen hiletetara joan, hura niretzat ez baitzen inoiz inor izan; ama, ordea, betaurreko beltzak jarrita joan zen, nahiz eta negarrik ez egin.

Aita joan zenez geroztik gauzak ez ziren asko aldatu, amak, ikusten nuen gutxitan, ez zidan kasu tutik ere egiten. Taberna zulo hartan lan egiten ez zegoenean, besteren batean egongo zen, bere oroimenak itotzen.

Institututik atera ondoren, egunero joaten ginen auzoko parkera. Auzoan denok ezagutzen genuen elkar, betidanik berberak bizi izan baikin. Gainera, auzoa txikia zen, hirigunetik nahiko aldentua. Parkean haurrak, tabernan helduak, leihoetatik begira atso marmartiak. Gazteok, al-diz, parkean egon ohi ginen, baina beheko aldean. Ez zen jende asko pasatzera ausartzen eta pasatzen zirenak zer ikusiko zuten ez zekitelako izango zen. Bertan orduak igarotzen genituen, hamar bat lagun izango ginen eta oso ondo konpontzen ginen elkarrekin. Askok hitz egiten genuen, baina ez genuen ezer esaten.

Askotan, parketik ondo “kolokatuta” Pacorenera joaten ginen, zer edo zer hartzera, bertan egoten baitziren besteak. Santi eta biok tabernatik lehenago ateratzen ginen eta autopista zeharkatzen zuen zubiraino joan ohi ginen. Santirekin egotea asko gustatzen zitzaidan, nire lagun mina izan zen auzora bizitzera etorri zenetik. Zubian eserita egoten ginen biok, hankak hutsean zintzilik genituelarik, gure azpitik ziztu bizian pasatzen ziren autoei begira.

Santik oso gutxi hitz egiten zuen, nik bezala, baina ahoa irekitzen zuen bakoitzean lelotuta uzten ninduen. Gauza asko kontatzen genizkion elkarri, batez ere genituen ametsak. Berarekin nengoenean arazo guztiak ahazten nituen, droga bat zirudien harekin hitz egiteak, droga

ona. Amak tabernan edaten bezala, nik Santirekin hitz eginenez itotzen nituen nire oroimen eta arazo guztiak.

– Nora joango ote dira auto hauek guztiak? Zuzen zozak, azkar, seguru.

– Bazekitek nora iritsi nahi duten, gu, aldiz, nora joango gara? Nondik aterako gara?

Arima bikiak ginen, esaten zuena oso ondo ulertzen nion, gauza bera sentitzen bainuen.

– Xanti, zulo honetatik irtetea lortuko diagu, noizbait. Ez diagu zertan bizitza osoan zulo madarikatu honetan bizi, beste edozein lekutara alde egin zezakeagu. Inork ezagutzen ez gaituen leku batera.

Santik, nik bezala, arazo handiak zituen etxean, aitari sekulako beldurra zion, baina antzeko egoeran egonda ere, okerrago zeraman. Ahula zen oso eta, aitak jotzen zuen bakoitzean, astebete egoten zen etxetik atera gabe, depresioak jota. Hura ez zen ni bezalakoa, niri jendeak nitaz zioena berdin zitzaidan, beno denek esaten zutena ez, denek Santik izan ezik.

– Ezin diat gehiago. Zergatik bizi naiz? Zer egiten dut? Nora noa? Ezin diat.

– Zer arraio esaten duk?

– Joder, Dani, hemen ez dagoela bizitzerik, dena berdin dik, denei bost axola natzaiek, sagar ustel bat nauk...

– Xanti, ez esan hori, denak dik irtenbidea, eman denbora denborari.

– Hamasei urtez itxoin diat, denbora luzez, eta berdin zagok. Berdin ez, okerrago.

Denbora luzez egon ginen isilik, hausnartzen, eta bai, Santik arrazoi zuen, dena zulo beltz bat zen; halere, nik animatu egin nahi nuen, adore pixka bat eman:

– Xanti, zergatik ez gara gauean San Martingo etxera joaten? Ikusiko duk, etxetik alde eginez gero hobeto sentituko haiz.

San Martin, zubia gurutzatuz, hiritik kanpo zegoen etxe zahar huts bat zen eta, normalean, ez zen inor egoten. Askotan joaten nintzen, bakarrik egon nahi nuenean, bakardadean.

– A zer irtenbidea! Jadanik beranduegi duk, ezin diat gehiago, etxetik joatea... gero itzultzeko? Nire arazok ez ditek konponbiderik, nire bizitzak ez dik konponbiderik.

– Gauza guztiek egin zezaketek hobera, are gehiago bizitzak.

– Eta zer da bizitza? Hori duk dudan bakarra...

– Bizitza eman diezaaketen erregalorik handiena duk, badakik?

– Berdin dik, joango al gara institutura? Nik bihar etsamina diat eta orain literaturako klasea hastera ziak, goazemak.

Santiri ikaragarri gustatzen zitzaizkion literaturako klaseak, gainditzen zuen bakarra zen, axola zitzaion bakarra.

Hurrengo egunean, Santi ez zen azterketa egitera joan eta horrek harritu egin ninduen. Pentsatu nuen aitak ez ziola utziko institutura joaten, ez baitzen lehenengo aldia izango, baina kalera ere ez zen irten.

Kezkatzen hasia nintzen, bere bila etxera joateko prest nengoen, Santik depresio handiak izan zituen azken egu-

netan eta harekin izan nuen azkeneko elkarrizketak oso kezkatuta utzi ninduen, gainera ez nuen imajinatu ere egin nahi nola utziko zuen aitak. Susmoa nuen bere buruaz beste egiteko ideia bueltaka zuela, baina ez nekien nola lagundu eta, halere, ez lidake kasu txintik ere egingo, garbi zuelako.

Arratsaldean izan zen, parkean ginenean; bertatik oso ondo ikusten zen Santiren etxea, laugarren pisua zen, porlanezko bloke ilun eta itsusi bat, inguruko guztiak bezala. Argi guztiak itzalirik zituen, baina bat-batean argia piztu eta emakume garrasiak entzun genituen, garrasiak baino, orroak ziruditen. Berehala ohartu ginen Santiren ama zela, aitak, berriz, burua leihotik atera eta laguntza eske hasi zen.

Segituan suposatu nuen gertatu zena eta horregatik ez nintzen bertaratu. Txus izan zen altxatu zen lehena eta besteek atzetik jarraitu zioten.

– Jode, Xanti, zergatik egin duk hori?

Egonezina sortu zitzaidan nire barrenean, korrika hasi nintzen, noraezean, ez zuen berdin, soluziorik bazuen, irteterik bazuen, baina ez zekien nola; auto bat bezalakoa izan nahi zuen, zuzena, azkarra, segurua. Baina ez zuen lortu, ez zen saiatu, ezin zuen.

Ez zen nire errua izan. Nik lagun niezaiokeen, baina nahiz eta egin, ez zidan jaramonik egingo, ez zen nire erruz izan.

– Ez da nire erruz izan! ... Bizitza gauza handia da!

– Dani!

Korrika zetozen niganantz, izua aurpegietan, zuri-zuri.

– Dani, ez, ez duk hire erruz gertatu. Denok zekiagu zer gertatzen zitzaion, hura ez zuan hi bezalakoa, ahulagoa zuan, eta bere gurasoek ditek erru guztia.

Isildu egin nintzen, behera begiratu nuen, eta ez nuen ezer ikusten... belarra.

Nire malko lodiek belar artean zegoen lore bat bustitzen zuten. Hiri puta hartan zegoen belar bakarra San Martingoa zen.

– Nola izan da?

– Oso gogorra, txo, ia bertan seko geratu nauk ni ere ... Tiro bat bota dik ahoan, dena odolez utzi dik, eta...

– Isil hadi, joder!

– Barkatu, egia duk, txo, hau zian eskuetan, bere egunkari ezkutua, hiretzat dela uste diagu.

Santik argi zuen nahi zuena: berak jasandako guztia gurasoei ordainarazi nahi zien. Egin ziezaiekeen okerrena, haien etxean seme axolagabea hilik ikustea. Hilik ez, erailik.

Bakarrik egon nahi nuen, Santiren egunkaria hartu eta bertatik alde egin nuen, oinez, noraezean. Lurrera begira, malko lehortuak masailetan.

Beti bide bera. Bide argia hasieran, iluna bukaeran. Etxetik tabernara, tabernatik parkera, parketik institutura, institututik etxera. Ezer ez da aldatzen. Beti jende berarekin topo egin, hitz egin, entzun. Bide honetatik irten gabe. Baina norabait narama? Oinek ez ninduten urrun eraman, baina norabait iritsi nintzen.

Lurrean etzan eta Santiren egunkariari begirada bat bota nion.

Azken orrialdea irakurtzen hasi nintzen, Santiren azken eguna.

“Zer da bizitza? Bizitza lore bat bezalakoa da. Ederra izan daiteke, edo oso ustela. Txuria izan daiteke, baina baita beltza ere. Nire bizitza ustela da. Nik bizitza ilun, gogor eta arantzatsua izan dut.

Literatura irakasleak esaten duen bezala ‘sasiaren artean larrosa jaio daiteke, familia berekoak baitira, biak arantzadunak, baina larrosak ez die bere lurra hartzen utzi behar, aurre egin behar die.’

Ni saiatu, saiatu naiz, baina ezin izan dut; kanpoaldetik aspaldian zimeldu nintzen, eta barrualdean, jadanik, ez zait erakusteko asko geratzen. Amore ematen dut. Loreak bizirik irauteko argia behar duen bezalaxe, guk maitasuna behar dugu, eta niregana iristen zen argi izpi bakarra Dani zen. Izpi sekretua, debekatua.

Bai, Dani. Hau irakurtzen duanean, ez hadi nirekin haserre, baina hau aurpegiatzea zaila duk niretzat. Hi bezalakoa izatea gustatuko litzaidakek; larrosa bat hire ondoan ez duk ezer.

Hi izan haiz maite izan dudana bakarra, nire bihotzeko hazia. Hik ez hekien, baina maite haut, Dani!

Ez hadi nigatik tristatu, badakik, bizitza horrelakoxea duk. Eskerrak eman behar dizkiat, hiregatik izan ez balitz aspaldian nengoan lurpean. Hirekin izan dituk bizitza beltz honetako ostarte bakarrak, unerik goxoenak. Eskerrik asko, Dani, maite haut.

Santi.”

Danik dena kontatzen zidan, dena. Zuri-zuria geratu nintzen, hotza, izoztuta, nire lagun minenak maite ninduen, baina ez lagun moduan; haserretu egin nintzen, zergatik ez zidan aurpegira esan? nik ere banuen zerbait hari esateko.

Xanti, nik ere maite haut.

POESIA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

Agur laztana

Xabier Paya Ruiz
Ander Deuna ikastola
Sopela

Zure begiek sartu zidaten
maiteminaren labana,
baina odolak diraki eta
denborak dena darama,
astunegia bihurtu denez
ezintasunaren zama,
esana eta izana,
batak bestera narama,
metro bat hartu beharra daukat,
agur maitea, laztana,
urruntasunak apurtu dezan
zugatik senti dudana.

Bide guztiak urratu ditut
izateko zure jabe,
zugandik jaso dudan destaina
bihurtuaz atsekabe,
zure arreta lortzeagatik
sartu ninteke abade,
maitasuna, izan ere,
gaur egun ez da debalde!
itxaropenak segitzen badu
ez dut etsiko; halare,
nire bizitzak ez du zentzurik
zure maitasunik gabe.

Beti nengoen zuri begira
beti zure inguruan,
zure begiak eta ezpainak
zebiltzan nire buruan,
gehiegi ez ote zaren niretzat
nahiz eta ez jarri dudan;
zer egingo dut orduan,
kolokan banabil mugan?
zure begiek itsutu naute,
nahiz argi ikusi dudan
zure moduko beste neskarik
ez dagoela munduan.

Nik zertarako bizi behar dut
dopazaleen erara,
nire bizio bihurtu zinen
sufrimendu eta traba,
metro-leihoan dirdirka dabil
nire malkoen islada,
batzen baldin ez bagara
ilunagoa da gaba,
lehenago ere esanagatik
hain handia da ikara;
nire bizitzak ba al du zentzurik
zu nirekin ez bazara?

Zure eskutan eduki duzu
nire bizitzaren giltza,
baina ez zara hortaz ohartzen
iparririk gabe zabilta,
bizitza hain da ederra baina
denbora horren murrizta,
lasaia edo bortitza,
alegera edo hitsa,
pentsa ezazu momentu batez
zein tristea den bizitza,
batzuk besteen ekintzetara
mugaturik bagabiltza.

Gogoan daukat zure irria,
gogoan zure itxura,
gogoan zure ezpain gorriak,
gogoan zure lilura,
baina gogoan dudan guztia
nola ez zaizun ardura,
azken pausua gertu da,
ikus dezaket helmuga,
gauero loak hartu aurretik
ekarri nahi dut burura
oroitzapen bat baino gehiago
izan zen harreman hura.

Horren zaila da dama bateri
sentipenak azaltzea
eta ondoren bilatu gabe
zoriona aurkitzea;
hain zaila al da pertsona baten
sentipenak ulertzea?
Ba al da lar eskatzea
ulerkorra izatea?
Zu ez bazara nor izango da
nire neskatxa maitea?
Nork beteko du bihotz barnean
senti dudan hutsunea?

Keinu baten zain egoten nintzen
jarrita zure aurrean,
limosna bila zure atzetik
seinale baten eskean,
nahiz ez dizudan inoiz gordeko
gorrotorik bihotzean,
jarraitu nahi dut nirean,
ezinezko ametsean,
inoiz bidean idatzitako
bertso hauek topatzean,
jakingo duzu zer gordetzen zen
nire bihotz barreanean.

Urtaroen klandestinitatean, zu

Gaizka Amondarain Ipiña
Arratia institutua
Igorre



UDABERRIA

Teresa zen udaberriaren izena,
loreen matxinadari jarraiki
 aieru batekin zimelak biztuz
bero baten beroaldi eta presentzia baten soslai
landetan galapan galtzen zen haizea
berarekin zorabiatutakoak
 larrosa usainetan loak hartuz
gorazarrea zekarten arratsetako bristadek
 tantetan Teresarentzat
eta nik haizea ezin laztandurik
hautsezko adatsetan aitortu nuen
 nire barneko erauntsia
inausi ezinezko adaxken leinuruak
 zuganainoko xerka ahalbidetzen zidaten udaberrian
eta menturaz irentsitako lakioa
 patuaren fruitu zen
 otzara baten bildutakoetatik ihesi
eguneroko eguzki herabearentzat
 ausardiazko elea zinen zu Teresa, udaberrian
eguneroko arnas berdearentzat
 lore bat gehiago zinen zu Teresa, udaberrian
eguneroko poementzat
 zu zinen Teresa bihar arteko zubia, udaberrian

UDA

Teresa zen udaren izena,
hondartzarako bidean
restop bakoitzean
 urtutako fereken izena
lurgorriarentzat irratian bilatutako
 amodiozko kantua
ur gaziarentzat bi gorputzen arteko jolasen presentzia
mihien burrukaldietan gelditu ezinezko tren bakartia
Teresa zen presa bako egunen aipua
atzamar artean erretako zigarroen ahapaldia
editorerik behar ez zuen poesiarentzat orube
oparotasunearen urgurian agitutako maitasuna,
gualdeetan lausotu ez ziren irudi bakarrentzat
 Teresa zen nire alboan nuen tragurik luzeena
mila erromeri kanturen ostean
 malekoi berean lokartzen zen olatua
adei guztien egoitza eta beroaldi guztien hezetasuna
plajiatu ezin ziren kantuen melodia
zinen zu Teresa, udan
liriburtuaz esnatzen zen gaztearentzat
 lehen ur basokada zinen zu Teresa, udan
amildegi gainetan idoro nituen ortzien jareile
 Zinen zu Teresa, udan
Zu zinen Teresa mikaztutako garagardoen goxo, udan

UDAZKENA

Teresa zen udazkenaren izena,
erortzen ez diren hostoen izena
leihoetan julistutako likinen agoniarekin
 jantziago zetorren maitasun baten aterri
gogorra biguntzen eta biguna gogortzen zuten
 musuen lehen haztamua
eta aurka jarritako lur ekai nimiñoen
 itzalarentzat setaz bihurtutako guda
zurekin musuen klandestinitatea ezagutu nuen
zure bideari jarraiki eskuen sotiltasuna
 marraztu nuen auzoetako grafitietan
kotxe barruetan nozitu gabeko arratsak
 eldarnio bihurtu nituen
eta difuminatutako lainoetan
 zure ahotsaren fereka miretsi nuen
lurzoru doilorretan erantzun bat bilatzen nien
 erauzitako egunei
eta erantzuna zu zinen Teresa
ateak tunkatzen zituen haizearen leinuru
 zu zinen Teresa, udazkenean
analogoen demandan zebilen mutilarentzat geriza
 zu zinen Teresa, udazkenean
zizelatutako mendi magalen xerka
 zu zinen Teresa, udazkenean
zu zinen Teresa ahoskatu gabeko aitorpenen berma,
 [udazkenean]

NEGUA

Neguaren izena Teresa zen,
soro mortuetako bizi itzali baten orrazearen izena
gaztetxe bateko kontzertuan ezagututako begien testigantzan
 itsaso bat jartzen zuena
esku hotzetan musu bat lerratuz
 bihotz bero bat opari
taberna txokoetan kezko ahokadentzat
 kafe zaporeko olatu bat zinen Teresa
ubeldutako ukabilentzat hats beroa
sutondoaren umelean larruaren moralitateaz arduragabe
 jolasten zuen emakumea
neguari egotzitako laidoak gauarenak zirela jakinik
 disidentzian bizi zen beratz baten xirripa
 eta moteldutako pausoen bakantasuna
 bat ziren negu zaporeko karamelo haietan
eta etxe barruko egotaldietan
 hasperenak neoizko poema bihurtzen ziren
eta kriseiluak itzaltzean argitutako edertasunak
 zure izena zuen Teresa; neguan
hotzaren kontrako salaketen abokatu
 zu zinen Teresa, neguan
folio zurien kolore zu zinen Teresa, neguan
kotxeetako beiren lausoa
 zu zinen Teresa, neguan
urteko azken poemen lehen hitza
 zu zinen Teresa, neguan
zu zinen Teresa hilobi baten aurrean
 egotzitako mutilaren neskalaguna, betirako

Txori bati begira

Amaia Martin Iriondo
La Salle ikastetxea
Donostia

1.

“Nondik zatoz?” galdetu dizut,
harriduraz hartu bainau
zure lumajearen odolak.

“Pristinatik nator –ihardetsi didazu-
eta Racaketik pasa berria naiz
Eztarria lehortuta daukat
emakume alargunduen,
haur umezurtuen
etsipenezko hasperenekin
bat eginda.”

Eta ispilu zahar baten aurrean
ikusi ditut zure begiak,
argi-ilunak,
eta ohartu naiz, minagatik ere,
inoiz ez dituzula errotik egotzi
ahots nobleak;
etengabe ari direla
gauaren isiltasunarekin solasean
Kosovoko heriotza
eta bizi beharraren agonia.
Ispilu zahar baten aurrean
ikusi ditut zure begiak,
ilun-argiak.

2.

Nire eskuen epeltasunetik
askatzen zaitudan orduko
munduan zehar egin beharko duzu
berriro ere,
begi ninietatik kendu ezinik
burdin okertuen herdoila,
adreilu beztuen isileko oihua.
Haatik, txori zarelako,
zoazenera zoazela ere,
zurekin eraman beharko duzu
kantuaren antzineko sentimen zaharra,
mundua asmatu zeneko arrastirian,
eguzkiak lainoen artetik
sartu-irtena egin orduko,
kantura bultzatu zintuen
instintoa,
eta lehen hegaldiaren zirrara,
estreinaldiko begien dirdiran.
Paradisuan eta Kosovo,
Babiloniako lorategiak,
Serbia, Mazedonia,
Montenegro eta Albania

3.

Esaidazu, txori, zer uste duzu,
zilegi dugula hainbeste zauri
kantatu duen zure ahotsa
gure erosotasunen burdinen atzean ezkutatu
eta 1999ko otsailaren 11n
Racakeko muino elurtuetan
hobiratutako kosobarrak ahanzteak?
Zilegi dugula paisaje erreak
alaitzen saiatu den zure kolorea
gaueko arropatan janzteak?
Zilegi dugula urrutiko baso
eta mendietatik ekarri diguzun aire izutua
gure ongizatearen gizarteko lurrinaz
igurtzea?
Ez didazu bat-bateko erantzunik eman.
Gero, ordea, zure bizkarrean hartu nauzu
eta hegaz egin dugu zu zatozen herrira.
Ez didazu ezer esan, baina Kosovon
ikasi dut ezer gutxi aldatu dela
eta gizon-emakumeon lehen urtebetetzea
orain milioi bat urte izan bazen ere
gorputza minbera dela,
jan, arnas hartu eta lo egin beharrean gaudela;

gure azal finaren azpian,
odolak zainetan gora eta behera
egiten duela,
eta azkazal, larru, hezur, hortz,
begi, bular eta bihotz,
torturarako den-dena baliagarri izan dela.
Coliseon, Treblinkan, Kosovon,
Hiroshiman, Gernikan eta Txetxenian.

Garrasi mutuak

Iratxe Esnaola Aldanondo
Santo Tomas Lizeoa ikastetxea
Donostia

Iritsi da bakardadearen trena hirira.
Biluztu ditu azken hitzak
eta bisitatu ditu bere sorleku izan ziren
kobazulo eta lubakiak,
ilunabarrez.

Bisitatu ditu gormutuen erreinuak
eta arnasa berreskuratu du, tantaka osatuz.
Agertu zaizkio bolondres eskas batzuk
bakardadearen bagoietan esertzeko asmoz,
baina bertako paretetan zintzilikatutako
irrintzien isiltasunak
aurpegiak mututu dizkie,
begiak lapurtu, azala urratu,
bihotza estoldetara bihurritu.

Barneratu da hiriko parkean.
Begiztatu du bikote anonimo bat eta
fossilizatu egin ditu denboraren pausoekin jolastuz.
Fossilizatu egin ditu bi itzalak bi harritan.
Fossilizatu egin ditu maitasunaren laztan ahulen
aurpegia desfiguraturaz.
Barre egin du maitasunaren ahuleziaz.
Barre ahuleziaz.

Zeharkatu ditu arbola makurren artetik
zoriontasunaren eremuak:
Hilerriak. Hildakoen herriak.
Arima oroitarrien egarria asetu nahiz
ureztatuko ditu bere izerdi tantez
bere semeak
paradisuan hazi daitezen,
non larrosa sorta astekari ahaztuen oroitzapenak
sardeska itxuran etorriko ez diren,
non arantzarik ez eta, larrosarik ere egongo ez den,
non oroitarrien hoztasuna gurtua izango den;
non zoriontasunaren erregina bera izango den.

Euri tantek kilimak egin dizkiote
bere gorputzaren opakotasuna gardentzeko asmoz,
bere barnean dagoena asmatzeko gogoz.
Begirada iheskor bat luzatu du supituki
aldameneko putzura:
bere itzala hodei-malkoekin jolasean.
Desagertarazi du itzala.
Izua. Izua.
Bere islada lakuan.
Izua.

Izututa ihes.

Ihes arbola makurren artetik
errealitate gardenegiaren aurrean pausatua,
putzua uholde bilakatu baitzaio jada
bere irudiaren artelan bat bailitzan.

Ihes. Ihes.

Mantsotuago, aterpe hartu du
bere ausentzian tren geltokiaren zaindari
izan diren lagun bakarrekin.
Etxean sentitu da burdelean:
intsentsuaren eta gau beroaren kedarrek
bakardadearen emagalduek estaltzen dituztela,
mortal ororen bizitza monotonoa horizontalki,
ordenatuki etzaten den lekuan.

Ferekak, laztanak, orgasmo gozoak...
zilegi diren lekuan,
gorputza den izara zuria
hasperen jarioen morroi huts den lekuan,
gorputzen eztandak, mugimenduak,
arma iraultzaile bakar bihurtzen diren
lekuan...
etxean sentitu da.

Gauean barrena giro kalaberikoa areago.

Gozamena argi txikietan isladatutako

azken kearen putzada isolatua da.

Barran azkeneko gozamen ikutua:

– Whisky bat arren!

Paradisua atzean utzi du. Utzi, utzi...

Gaua amaitzear dagoela

farolek proiektatutako argiek

bakardadearen tren beldurrez ikutzen dute.

Eta beldurrez begiratzen dio

leiho ertzeko maitaleak ere.

Trenaren txistu-hotsa aditzean

herioren iloba gaztea den

izu damak izozten du,

lamien pareko doinu malenkoniatsuan

korapilatuz, lelotuz,

konpas geldoko pentagrama luzeenean

trabatuz.

Orduan...

Izuaren gatibu, bakardadeak

bere memoria, bere norantza,

bere nortasuna, bere helbidea

lapurtuko diolako.

Bakardadeak berriro ere barre egin du maitasunaren

[ahuleziaz. Barre.

Trenak hirian barrena darrai
desfiguraturako aurpegiak
abstraktuki antolatutako garunetan
isolatuz;
berak antolatutako garun bakartiak
isolatuz.

Gaua amaitzear, garrasi mutuek
odoleztatzen dituzte hormak,
eta bakardadearen erregimenetik
ihes egin duen martiriren batek
odolez izkiriutzen ditu mutututako eleak.

Gaua amaitzean...

Egunsentiaren gorputza zabaldu da hiri osora
bakardadearen trena desagertuz.

Hitz biluztuak jantzi dira,
berpiztu dira maitaleak,
hilerriak ingurune kaotiko eta beldurgarriak
dira berriro ere,
burdelak ez dira atsegintoki,
kaleak baketsuak dira...

Baina hiri desfiguratua
eta aurpegi desfiguratuak bertan daude,
bakardadearen trenak alde egin duen arren
hiriaren lurrazpian hazi berriaernaldua baita:
Bakardadearen metroa abian da.

Garrasi mutuak hemen dira.

Etenaren trilogia

Unai Baztarrika Otegi
Txindoki Alkartasuna institutua
Beasain

I. Isiltasunaren garrasia

Hitz hutsak dira,
hitz hutsak, politikariak
zurikeriaz esandakoak,

hitz hutsak,
maitemindu ustearen
“maite zaitut” sakona:
hitz hutsak.

Hitz hutsak,
apaizak Jainkoaren
aurrean izkribatuak (luma gorriz
idatziak...?)

Notario xaharrak
esku dardartiz
egindako sinaduraren esanahi

hutsala, bi hitz soil: lotsaren lotsaz
mila aldiz zirriborratuak (zapuztuak...)
ulertuak ez izatea merezi duten bi hitz
izkutu, hitz hutsalak. Besterik ez.

Hitz guztiak (are gehiago), gure erraiak
gehiago husten dituzten

hitz hutsak,

orain irakurtzen ari zaren hauek,

hutsak,

lurrikara osteko
isiltasunaren ondoan.

Mesedez!

Isil gaitzen,

ase gaitzen,

Entzun! Entzun ISILTASuna

II. Askatasunaren presondegian, guztia paradoxa

Presondegiko leihatila batean,
burdin artetik zintzilik,
kanpoaldera so,
bi begi: begirada bat.

Bi izar txiki,
gau ortzi ilunean
dirdir...

askatasun gosearen arrantzaz
bizi den kairako bidea
erakusten diguten
bi faro argitsu bailiran
haizebegietan...

Begirada itxaropentsua,
askatasun ametsen
behatoki, irrikaren
paisaiaren... Behatoki.

Hainbat urtetako
amets errenkadaren
akabera eta hastapena
Presoaren argi printza, itxaropen printza
bakarraren jabe haizen hori
zabal hadi presoaren
nahietara, desioetara, utopietara...

Berandu, goizegi
izan aurretik.

Leihoan barrena,
urrunera tinko diren
bi begien xedea,
ez da askatasuna,
Eguzkiaren handitasuna, baizik.

Burdin artetik,
ezezagunera barreiatzen den
begiradaren
jabearen xedea,
ez da askatasuna,
Eguzki galdatan berotzea, baizik;
Zitekeenaren eta denaren
abailduran su hartzea, behin maitatuen
malkoetan, pozez itotzea.

III. Bizitzaren berekoikeria

Negua joana,

Udaberria etorri zen.

Kimu berriak sortuak,

zuhaitzak lorez apaindu ziren.

Gu hilak,

belaunaldi berria jaio zen,

baina, tartean ez zen kimurik sortu. Zergatik?

Oroimenaren zuhaitzik landatu

ez genuelako.

POESIA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

Koloreak, bizitzaren arima

Irati Goikoetxea Asurabarrena
Alkartasuna institutua
Beasain

1. Berdea

Benda belarra eztimamituz
zure xedeen baitara,
Bake-Berdeak iratzartzen du
Ama Lurraren taupada,
BERDEA zure edertasuna
edertasun betea da,
itxaropen begirada,
txorrotxioen balada, (bis)
pintzel urtsuko urdina eta
horiaren besarkada,
nire paleta alaitzen duen
irrifar urtua zara. (bis)

2. *Arrosa*

Zuri-gorrien gorri-zuriak
sortu zintuen argira,
geroztik gure erraietatik
ezin zara erretira,
larrosetako petaloetan
esentziaren distira,
barne-indarren pilpira,
maiteminduen desira, (bis)
bizitzak berak amestutako
koadroaren neurrira,
irudi hilen sentimenduak
ARROSEZ margotzen dira. (bis)

3. Morea

Gorria eta urdina nahastuz
gara MOREAREN jabe,
lan zaborretan esklabu gisa
askatasun hatsik gabe,
aspaldian da emakumea
gizonezkoen mirabe,
beltzuri eta herabe,
lila usaina edabe, (bis)
kuraia eta burubidea,
egitasmoen zutabe;
emakumeen borroka zara
berdintasunaren alde. (bis)

4. Urdina

GibelURDINEN aieru hauskor,
bakearen deiadarra,
pentsamenduen usain isila,
sarkor ta zerutiarra,
atsedenleku gisara hartu
ohi duzu maiz ostadarra,
amets gozoen marmarra,
libre sentitu beharra, (bis)
itsas ferekak zeruan bilduz
mugarik gabeko marra,
haize askeaz laztantzen duzu
hegoa eta iparra. (bis)

5. Horia

HORIA denez laranja eta
berdearen batasuna,
lilitegian nabarmentzen da
narzisoaren lurruna,
musu suharrez tindatzen duzu
maitaleen eraztuna
urreztatuz ondasuna
eta itzartuz eguna, (bis)
eguzki printzez lau haizetara
zabalduz etorkizuna,
zure kolore argitsuekin
jantzi ohi da txapelduna. (bis)

6. Zuria

Amesten dugun justizi eta
bakearen arabera,
negua ere urtu liteke
elurrarekin batera,
azuzenaren ederrak ere
ZURITIK badu sobera,
bihotzetik bihotzera,
uzkur bezain alegera, (bis)
bizitza baten bukaera ta
beste baten hasiera,
ustez bakarra izanagatik
denen besarkada zera. (bis)

7. Koloreak

Inauteri ta ostadarraren
ezinbesteko baldintza,
pailazoaren soineko eta
zorion beteko ditxa...
gorpuztutako lorategiak
bere baitan garabiltza,
sentimendua ta hitza,
esku emanda dabilta, (bis)
goi-argirako zubia eta
Van Gogh-enganako giltza,
KOLORE eta lorerik gabe
zer litzateke bizitza! (bis)

Sentimenduetan galdurik

Odei Arregi Izagirre
Ikasberri ikastola
Azpeitia

Bizitzaren amildegietan
amestu gabeko
ametsen naufrago.
Iragana besoetan,
laket zait
oroitzapenetan
uger egitea,
eta gura nuke,
maite nuke,
etorkizunera
zugaz bidaiatu,
bidai poltsa
oroitzapen gozoz beterik.
Eta hitzok
izkiriitzen ditut
goizeko ihintzagaz,
noizbait
zure ahotsean urturik
dastatzeko itxaropenez edo.

Sentimenduetan galdurik,
galdurik sentimenduak ere.

Ametsak egi
bihurtuko diren
unearen xerkan,
zure begien kolorea
iraganean
galdu zaidala
ohartu naiz.

Orain,
oroitzapenen kutxan
ari naiz bila,
eta zure begiradaz
beste behin
topo egitean
ikusi dut
itxaropena urtzen.

Denbora ihes doa
etorkizunera
eta gu,
orainean preso,
iraganaz mintzo gara.

Eta haizeak
gozoki xuxurlatzen dizkit
maitasun hitzak
belarrira,
zuk pentsamendua
hosto erorietan
galtzen duzun
heinean.

Eta ez zara
ohartzen,
maitasuna
akats bat dela
nori emanik
ez daukagunean.

Aingeruen negarra

Odei Arregi Izagirre
Ikasberri ikastola
Azpeitia

Gaua da.
Sirena hotsak
esnatu nau.
Leihotik
so egin dut,
neoi argiz
apainduriko karrika
hutsik dago,
triste.
Doinu abailduek
laztantzen dutelarik
airea.
Euria ari du,
euri tantak
malenkoniaz
bustirik jausten dira,
maiteminduen
musu ezkutuen
berotasuna hoztuz.

Zer ote aingeruek
negar egiteko?

Gorriz tindaturiko
euri tantek
estartan
alfonbra gorria
zabaldute.
Ortzia ere
gorri zikinez
bustirik.

Odolez ornituriko
hodeiek estali
dituzte
izar ahaztuak.
Garrasiek usteldu
dituzte maitasun
hitzak.
Denbora instant
batez
gelditu egin da
aingeruei malkoak
xukatzeke.

Baina zer ote
aingeruek negar egiteko?

Labana bat
jausi da zerutik.
Ilargia zauritu
du, antza,
izarrak ostu
dituen lapurrak.

Noraezean

Maite Uriarte Gil
San Bartolome ikastola
Elgoibar

Noraezean,
noraezean dabilta sekula xukatuko ez dituzun
nire malko garratzak...
zeru goibelaren anpuluak.

Zure maitasun eza jasoaz,
irrika barruan gordeaz,
itxaropena ametsetan utziaz,
bitzak iragan bihurtuaz.

NEGARREZ

Hainbeste malko zertarako?
Zertarako?

Noraezean,
masailean zehar...
zu ez zarelako hemen egongo
nire anpulu ilunak xukatzeko.

Ez! Ez zara hemen egongo
behar zaitudanean,
ikusi nahi zaitudanean,
sentitu...
laztandu...
maitatu nahi zaitudanean.

Horregatik,
noraезean doa,
sakontasun berrien bila,
malkoa.

Horregatik,
malkoz beteriko putzu ilun batean
itotzen naute
pentsamenduek.

Horregatik,
nire malkoek ez dakite
zergatik diren isuriak.

Zuregatik agian.
Ez, zuregatik ez.

Agian, orain
negar egiten dut
ezin gogora ditzakedalako
beti saltoka ibili diren
zure ahotsaren oihartzunak.

Ez dut atseginik hartuko
zure atseginetzko garrasiak entzun arte...
zure begietara so egin arte izu ikaraz...
zutaz betiko maitemintzeko
beldurrez.

Ez zaitut ahaztuko
berriro zure ohe goxotik
logelako sabaia ikusi arte,
elkar besarkaturik...
bilutsik ...

Horrela agurtu nahi zintuzket,
besarkada bat, eta zugandik betiko urrundu.

Nire atseginezko garrasiak
baino ez zaizkizu geratuko oroimenean,
ero bezala maitatu izandako
izerdi bustia maindire artean,
eta inoiz izan ez zenaren gogorapena
bihotzean.

Maindireen negarra,
Suntsitutako maitasunaren azken garra,
negar tantez hornitutako sugarra.

Esandako hitzak ulertu gabe daramatza gauak,
esan gabeko hitzak erraz ahazten ditu egunak...

Bazoaz.

Badoaz, era berean,
zirrara lotsatiak,
amodioaren eztanda erotikoak...

Eta...

egunsentian

amets bat izan zarela konturatuko naiz.

Amets bat gehiago?

Ametsa besterik ez...

Itzuli ezinezko denbora galdua ote?

Amodioaren berotasunak

kiskali dizkit ametsak,

itzali amets zoragarrien desioak,

izoztu bihotzean utzi zenizkidan arrastoak...

Kiskaltzen joan dira,

astiro,

gauaren ilunean.

Eta...
bat-batean...
itsasbeherak utziriko
zure urratsak
behin betiko
desagertaraztean,
biluzik ageriko da nire barnea,
galdurik,
kiskalirik,
itzalirik,
izozturik.

Eta negarrez jarraituko dut,
zuregatik ez,
niregatik bakarrik...

Jada ez naizelako zure zain egongo.

Etsipenezko negarra

Ohian Zubizarreta Iribekanos
San Frantzisko Xabier ikastola
Arrasate

“Askatasun haizea
balaz gelditu nahi ohi du
ero astoak,
tiranoak!”
J. ARTZE

Amets,
hator ene besartera.
Utz itzan hire bihotz eta gorpua,
hartzan atsedan.
Muxuka ezan ene azala,
xuka itzan hire malkoak
ene berotasunean.
Hartzan eskua, lotu nirera,
ez utzi ihes egiten.
Xuxurla ezan ene belarrira,
kosk egin, esaidan:
Non hago?
Nora egin dun ihes?
Ez nazan bakarrik utz.

Nork eraman hau?
Nork zulatu din bihotza?
Hire odol beroa izoztu dun jada,
itzali dun huen sua.
Begiraidan, esaidan, oihukazan:
EZ NAUK JOAN
Otoi, itzuli,
asko zeukanat hirekin bizitzeko,
ez hadi oraindik joan.

Vodka botila zeukanat aurrean,
zurrutada,
zurrutada,
zurrutada...
Lau horma,
1,
2,
3,
4,
erdian ni, eta hi?

Atsekabez bete naun,
gaixo.

Espetxeko iluntasunean bakarti,
tristuraren lagun,
heriotzaren dantza-bikote.
Huen irribarrea joan zain,
nuen bizi poza itzali dun.

Askatasun irrika amildu zaidan
infernuko putzuan.

Txilio egin nahi dinat
Espetxeko hormetatik irtengo ez den
deiadarra,
itxaropen mezua.

Ezingo dun entzun,
nabaritu... egingo al dun?

Tortura biziz narabilte,
etxetik urrun.

Jipoiak maiz sufritzen ditinat.
Irainak, boterearen hitz ustelak.

Hegan egin nahi dinat,
kaiolatik irten.

Itsaso zabalak igaro,
mendi eta haranak
ene oinez laztandu.

Lagunduko al didan
amesgaizto honetatik irteten?

Ezin dun ordea,
heriotzak eraman hau.

Galdegin nahi dinat:
NORA? NOIZ ARTE? ZERGATIK?...

Vodka botila zeukanat aurrean,
xahu, ez dun ttanttarik geratzen.

Lau horma,

1,

2,

3,

4,

erdian ni, eta hi?

URRUZUNOTARRAK

1986-2000



ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Agirre Aranguren	Iraitz	Ohore Galdua	1998	115	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Burua tente mutilak!	1999	81	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Maide duen orok...	2000	19	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Gorrotoaren mendekua	2000	27	Prosa
Agirre Arriolabengoa	Manex	Aitona	1997	155	Prosa
Agirre Elgarresta	Martin	Idazmakina bakarti baten azken narrazioa	1986	11	Prosa
Agirre Larrea	Antziñe	Irrati baten gora-beherak	1986	55	Prosa
Agirre Lazkanoiturburu	Mikel	Zergatik?	1989	143	Poesia
Aizpiolea Martikorena	Maialen	Azken orbela	1997	145	Prosa
Aizpiolea Martikorena	Maialen	Zerua negarrez denean	1999	19	Prosa
Aizpuru Segurola	Kristina	Isiltasunaren oihartzuna	1999	65	Prosa
Aldabaldetrekua Etxeberria	Gotzon	Itzultzerik gabeko bidaia	1993	97	Prosa
Altuna Angiozar	Nekane	Niregandik urrun	1987	95	Poesia
Altuna Angiozar	Nekane	Baldin argia ikustera iristen banaiz	1988	117	Poesia
Altuna Jauregi	Karmele	Praisku mutil zaharra	1986	99	Poesia
Altuna Jauregi	Nuria	Bizitza horrela delako	1987	11	Prosa
Alvarez Gerriko	Ion	Betidanik, betirako	1990	155	Poesia
Alzate Azpiroz	Jon	Zozketagai xelebrea	1992	103	Prosa
Alzugarai Sacristán	Aitziber	Zergatik?	1988	167	Poesia
Amondarain Ipiña	Nagore	Gogoratzen haiz	1995	195	Poesia
Amondarain Ipiña	Nagore	Malekoitik so	1997	185	Poesia
Amondarain Ipiña	Gaizka	Margotu ninduten	1999	193	Poesia
Amondarain Ipiña	Gaizka	Urtaroen klandestinitatean, zu	2000	137	Poesia
Amozarrain Mendizabal	Idurre	Pentsamenduak	1995	201	Poesia
Anzizar Lizarraga	Nerea	Blues bat gauaren iluntasunean	1997	35	Prosa
Apaolaza Goena	Amaia	Amaigabeko itukin latzak	1992	17	Prosa
Apaolaza Goena	Amaia	Zaharra berri... orain eta beti	1993	59	Prosa
Apaolaza Larrea	Uxue	Azken bost minutuak	1996	77	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Aranburu Aseginolaza	Iñigo	Sahatsaren azken negarra	1987	19	Prosa
Aranburu Aseginolaza	Maria	Bi hitz nire pentsamenduen maizterrari	1990	113	Poesia
Aranburu Zeziaga	Xabier	Hiriaren ostadarra	1989	113	Poesia
Aranguren Juaristi	Olatz	Aztiaren eskuetan...	1996	125	Poesia
Aranguren Mujika	Josune	Ni ez naiz Amaia	1997	65	Prosa
Aranguren Oiharzabal	Ainhoa	Gauaren atsedean isila	1989	171	Poesia
Arbelaitz Lekuona	Usua	Helmugara iristea, hori da kontua	2000	77	Prosa
Arratibel Galartza	Enara	Begi diztiratsuk	1995	49	Prosa
Arregi Elosua	Ainhoa	Konfidantzaren ordaina	1988	41	Prosa
Arregi Izagirre	Odei	Itsasoaren besoetan	1999	169	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Ametz gaiztoetatik ihesi	1999	175	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Sentimentuetan galdurik	2000	177	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Aingeruen negarra	2000	183	Poesia
Arrese Iturbe	Olaia	Maitemintzearen gaztigua	1993	175	Poesia
Arrizabalaga Linaza	Mirari	Zereko zera zertzeko	1986	105	Poesia
Arruebarrena Lizarralde	Miren Gurutze	Iluntasuna	1994	179	Poesia
Arruti Errazkin	Idoia	Ametzen Bakardadean	1998	63	Prosa
Arruza Elgezabal	Amaia	Naturaren legea	1988	49	Prosa
Artetxe Arrien	Ainara	Isilpean bego Anttonen itxura	1988	89	Prosa
Artola Iriondo	Mikel	Nagusia eta hirurok	1992	87	Prosa
Artolazabal Amilleta	Amaia	Beltza ez delako hain beltz eta zuria ilunago	1996	195	Poesia
Artolazabal Amilleta	Amaia	Iluntasunean lorea zimeltzen den lez	1997	221	Poesia
Artolazabal Amilleta	Amaia	Denborak ez du astirik	1997	237	Poesia
Asurabarrena Zipitria	Lierni	Aitonaren heriotza	1996	137	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa	Iñaki	Merezi al du paradisuak?	1987	101	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa	Igor	0 14	1991	155	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa	Leire	Zure zain	1996	153	Poesia
Auzmendi Agirre	Agurtzane	Omnia vincit amor - maitasunak dena garaitzen du	1990	161	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Ayllon Corral	Mikel	Jaiotza bat	1996	171	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Garaiak	1996	187	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Desgaraiko olerki zentzugabe solteak	1996	213	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Zer dakarkit erreka urak zure negar malkoak ez badira?	1997	163	Poesia
Ayllón Corral	Mikel	Zure xerka	1995	187	Poesia
Azkarate Egaña	Belen	Amona, egia ote?	1990	19	Prosa
Azkue Ibarbia	Xabier	Azken hitzak	1987	107	Poesia
Aztiria Etxeberria	Nekane	Lamintxo	1986	17	Prosa
Azurmendi Lasa	Ane	Zaharrak berri	2000	83	Prosa
Barbantxo Galdos	Iñigo	Soinu izoztuak	1999	123	Poesia
Baroja Arrue	Miguel M ^a	Apokalipsis 1913	1994	25	Prosa
Basterra Fernandez	Ainhua	Bihotzeko kontraesanak	1986	26	Prosa
Bastida Loinaz	Ana Isabel	Igande gau batetako eztabaida imaginarioa	1987	29	Prosa
Baztarrika Otegi	Unai	Etenaren trilogia	2000	157	Poesia
Beloki Lizarralde	Leire	Itsasoaren menpean	1994	185	Poesia
Beloki Lizarralde	Leire	Amodioaren desterruan	1995	211	Poesia
Bengoa Santxo	Mikeldi	Zu eta ni (hiria medio)	1988	135	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Etorkizunaren lurraldean	1997	193	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Atzera begira	1997	199	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Zure gorputzaren abenidetan galduriko azken intifada	1997	205	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Amaraun Anonimoetan	1998	177	Poesia
Beobide Azpeitia	Begoña	Abestiaren argia	1989	161	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Amodioaren itsasoa	1990	145	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Auñamenditik zure leihora	1990	151	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Amodioaren sehaskan	1992	161	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Poesiaren magalean	1992	167	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Iraunen dute	1993	169	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Kimeraren harresietan	1994	137	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Betzuen Arana	Kepa	Seiak eta hamar	1995	113	Prosa
Bilbao Barruetabeña	Leire	Herioaz maitemintzean	1995	165	Poesia
Bilbao Barruetabeña	Leire	Denboraren denbora	1996	117	Poesia
Bilbao Barruetabeña	Leire	Farolpeko itxoitea	1996	161	Poesia
Bilbao Barruetabeña	Urki	Beltz	1998	217	Poesia
Bitorika Albizu	Arkaitz	Bat-batean baturik	1994	167	Poesia
Bizkarguenaga Jugo	Amaia	Itsastar baten gogoetak	1996	145	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Jazza dut maitale	1991	109	Prosa
Cano Jauregi	Harkaitz	Denboraren hautsontzian	1992	127	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Amodioa, gorriz jantziriko emagaldu hori	1993	125	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Erresuma ahituak	1993	133	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Jitolore	1993	45	Prosa
Cano Jauregi	Harkaitz	Kaosaren abantailan	1993	143	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Urak ekartzen duena	1993	183	Poesia
Collado Legorburu	Sergio	Leihotik begira	1994	115	Prosa
Churruca Fernandez	Xabier	Boga-boga sareetan	1988	81	Prosa
De los Mozos Olaizola	Izaskun	Heriotza	1988	155	Poesia
De los Mozos Olaizola	Izaskun	Semeak beti seme	1990	131	Poesia
De Miguel Arnaiz	Olatz	Amaren Heriotza	1998	205	Poesia
Egiguren Azkune	Ekhiñe	Gau euritsu batean ezagutu nuen	1993	87	Prosa
Egiguren Azkune	Ekhiñe	Esan al dizut inoiz...	1994	173	Poesia
Egiguren Azkune	Ekhiñe	Orkidea beltza	1995	131	Poesia
Egiguren Imaz	Izaskun	Aitorpenak ilunabarrean	1988	11	Prosa
Eguren Etxabeguren	Iñaki	Hallelujah! Hallelujah!	1991	117	Poesia
Elduaiei Uranga	Estitxu	Bizitzan hamazazpi urte	1993	113	Prosa
Esnaol Badiola	Aitor	Eguna	1988	123	Poesia
Esnaola Aldanondo	Iratxe	Gau Hotza Eta Lainoa	1998	127	Prosa
Esnaola Aldanondo	Iratxe	Garrasi mutuak	2000	149	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Esnaola Goienetxea	Mateo	Ezkortasun boladetako gogoetak	1986	111	Poesia
Estankona Bilbao	Igor	Kondairak dioenez	1992	95	Prosa
Estevez Fernandez	Monica	«The beautiful life of the drugs; very-very beautiful life...»	1996	181	Poesia
Estévez Fernández	Mónica	Lehenaldia ahazten, oraina bizitzen	1995	223	Poesia
Estévez Fernández	Mónica	Desioan galdu arte	1997	177	Poesia
Estévez Fernández	Monika	Poetaren Bidea, Amaierarik Gabeko Kalea...	1998	153	Poesia
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Udazkeneko arrats euritsu bat	1994	63	Prosa
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Au revoir, maitea	1995	29	Prosa
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Azken trenaren zain estazioan	1995	19	Prosa
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Bekatuaren isurkia	1995	57	Prosa
Etxaniz Iraola	Ainitze	Ametsa egi	2000	43	Prosa
Etxebarri Coello	Aritz	Burruka	1988	149	Poesia
Etxeberria Yoldi	Naiara	Badajoztik edonora	1994	81	Prosa
Etxezarraga Ziarrusta	Irantzu	Arbasoen ahotan	1991	19	Prosa
Etxezarreta Etxarri	Enekoitz	Nire baitakoa zara	1999	159	Poesia
Ezeiza Ramos	Ainhoa	Idazle proiektu baten aburuak	1989	25	Prosa
Ezkiaga Iparragirre	Amaia	Heriotz Andereak zuria du laket	1990	39	Prosa
Fernandez Jauregi	Ander	Bakardadearen miseria	1999	53	Prosa
Ferreiro Villaluenga	Daniel	Zakurra	1998	105	Prosa
Ferreiro Villaluenga	Daniel	Maite Bengoetxea begira zegoen	2000	61	Prosa
Franko Sudupe	Jaione	Zerutar inperioaren zedean	1988	97	Prosa
Galarraga Aiestaran	Patxi	Oihartzun eta tenk	1989	121	Poesia
Galarraga Aiestaran	Patxi	Taiga eta Zorrilla	1989	127	Poesia
Galarraga Aiestaran	Patxi	Une hartan... eta orain	1990	137	Poesia
Galdos Arrondo	Olaia	Agurraren lezioa	1994	17	Prosa
Galparsoro Sarriegi	Ainhoa	Pailazoak irrifarra galdu du!	1992	61	Prosa
Ganzarain Etxaniz	Xabier	Ziutate postmoderno historiagabea	1992	55	Prosa
Garcia Aretxabaleta	Alexander	Fraileen arteko kontuak	1996	93	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
García Berasategi	M. Jesus	In memoriam	1992	141	Poesia
Garcia de Cortazar	Miren	Hutsune eta itxaropen	1987	35	Prosa
Garcia de Kortazar Agirrezabal	Jon Ander	Azken etapa	1992	69	Prosa
Garmendia Etxabe	Jaione	Markel	1986	31	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Bakarrik	1996	87	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Sei Puntako Izarra	1998	33	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Txantxangorriaren Kantua	1998	53	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Laztana	1999	37	Prosa
Garmendia Munduate	Larraitz	Amodioaren garapena	1992	155	Poesia
Gil Munarriz	Jorge	Izarren izenean	1997	123	Prosa
Gil Munarriz	Jorge	Heriotzak Ez Zekiena	1998	143	Poesia
Gil Munarriz	Jorge	Metro	1999	137	Poesia
Goenaga Jauregi	Jon	Gertaera arraroak	1991	89	Prosa
Goia Imaz	Garazi	Amodioaren pasioa	1996	49	Prosa
Goikoetxea Asurabarrena	Ekaitz	Gauaren Ilunduran	1998	187	Poesia
Goikoetxea Asurabarrena	Irati	Asko maite duenak asko sufritzen du	1999	187	Poesia
Goikoetxea Asurabarrena	Irati	Koloreak, bizitzaren arima	2000	167	Poesia
Goikoetxea Gezuraga	Josu	Frenopatiko triste eta eroa	1991	123	Poesia
Goikoetxea Gezuraga	Josu	Azken fotogramak	1992	121	Poesia
Goikoetxea Zabaleta	Idoia	Björkeport maldizioa	1999	101	Prosa
Goitia Pastor	Leire	Galdutako bihotzaren bila	1989	79	Prosa
Gómez Alonso	June	Gaueko kronika bat	1997	131	Prosa
González García	Kristina	Errugabea	1998	77	Prosa
González Montero	Claudia	Betiko maitasuna	2000	107	Prosa
Gorostizu Mujika	Ainara	Leticia	1997	111	Prosa
Gorostizu Mujika	Ainara	Londresko Bluesik Ederrena	1998	69	Prosa
Gorostizu Mujika	Ainara	Baserritik	1999	29	Prosa
Gorrotxategi Azkune	Miren	Herio	1997	229	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Gurrutxaga Uranga	Amagoia	Bi eguneko egunkaria	1986	71	Prosa
Gurrutxaga Zubimendi	Iñaki	Espaloia	1999	43	Prosa
Ibargutxi Gisasola	Lierni	Holyhead en gertatu zena	1991	99	Prosa
Imaz Ganzarain	Itziar	Bizitzaren egia	1991	69	Prosa
Imaz Irastorza	Mikel	Fenixaren pabeiloia	1986	61	Prosa
Imaz Irastorza	Mikel	Montparnasse-ko usoak dira igaro	1989	31	Prosa
Imaz Irastorza	Mikel	Zentzu eta funts	1989	135	Poesia
Intxausti Ormazabal	Garbiñe	Heriotzaren magalean banengo	1989	177	Poesia
Iribarren Aristizabal	Ibon	Romeo eta Julio	1992	41	Prosa
Iribarren Aristizabal	Ibon	Erretratua	1993	27	Prosa
Iribarren Aristizabal	Ibon	Okerreko gaua aukeratu nuen maitemintzeko	1993	149	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Behin betiko	1993	193	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Bizi baihaiz	1993	207	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Metalezko zuhaitzak belaze berdeetan	1994	145	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Amodioaren frentean hildako azken soldaduari	1995	145	Poesia
Iturriaga Zugaza-Artaza	Unai	Gaua eta zu	1992	135	Poesia
Iza Totorika	Ibon	Zaparrada lehorra	1991	51	Prosa
Jauregi Larrañaga	Aitor	Ahotik ere ihes egiten dun	1989	167	Poesia
Jauregizuria Lopez	Maidier	Zu ez zaudenean	1990	57	Prosa
Kano Ormazabal	Nagore	Emagalduek deitzen gaituzten horiei	1990	75	Prosa
Kastañares Etxezarreta	Asier	Itsasoak daki	1989	151	Poesia
Landabidea Urresti	Xabier	Sua	1997	215	Poesia
Larrabide Elexpuru	Leire	Opari misteriotsua	1995	103	Prosa
Larrañaga Ormazabal	Ane	Alaba galdua	1996	39	Prosa
Larrañaga Ormazabal	Ane	Laura	1997	23	Prosa
Larrañaga Zabaleta	Oihana	Zugatik	1995	87	Prosa
Larrarte Otegi	Miren	Panpina bat besterik ez	1989	41	Prosa
Lazkano Orbegozo	Aitzpea	Eguzkiak begiratu eta irri	1989	11	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Leiaristi Guenaga	Amaia	Ihes betea zilegi balitz	1988	27	Prosa
Leturia Iurrita	Iñaki	Genesi	1987	45	Prosa
Lizaso Urrutia	Maidier	Zu eta ni zigarroa medio	1991	59	Prosa
Loidi Garitano	Ane	Infernu berotik	1987	115	Poesia
Longarte Arriola	Maria	Fiat voluntas tua	1992	25	Prosa
Lopetegi De la Granja	Ekhi	Garai bateko hondarrezko erloju goibela...	1999	181	Poesia
Llona Ormaetxe	Idoia	Gizonak egin eta apurtu zuena	1987	53	Prosa
Madina Milikua	Txomin	Faroko zoroa	2000	35	Prosa
Madina Ugartemendia	Mikel	Ezetzta	1990	173	Poesia
Maiztegi Landa	Haize	Bizitza txuri beltzean	2000	119	Prosa
Makazaga Eraña	Nerea	Ilunbeko Neska Txikia Eta Hegoak	1998	211	Poesia
Makazaga Eraña	Nerea	Kolorezko bideak	1999	131	Poesia
Malagon Zaldua	Ana	Beleak kontatzen	1994	87	Prosa
Malagon Zaldua	Ana	Beti mugan, zerbait ulertu nahian	1996	19	Prosa
Malagón Zaldua	Ana	Maitasunaren beste definizioa	1995	37	Prosa
Manterola Arostegi	Nere	Bizitzeko arrazoia	1991	77	Prosa
Martín Iriondo	Amaia	Txori bati begira	2000	143	Poesia
Martinez Zabalegi	David	Zerurako bide bi	1999	89	Prosa
Mendia Usabiaga	Saioa	Denboraren ganbara	1994	97	Prosa
Mendieta Lasarte	Arantxa	Akatsa	1988	61	Prosa
Mendieta Lasarte	Arantxa	Autobeldurtze prozesua	1989	63	Prosa
Mendieta Lasarte	Arantxa	Azken gogoetak	1990	29	Prosa
Mendikute Zulaika	Maitane	Itsu Zulora	2000	91	Prosa
Mendiolha Agirre	Aitzol	«Oficialdegui-k orhoitt ükhenen dü Santi Unzueta «»vasco»»-a»	1991	37	Prosa
Mitxelena Albisu	Inge	Kutxa zahar baten istorioa	1986	77	Prosa
Mitxelena Albisu	Inge	Ander	1988	21	Prosa
Muguruza Sarasua	Saioa	Udazkeneko bakardadea	1991	147	Poesia
Muguruza Sarasua	Lorea	Musika baino pista hoberik non?	1999	73	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Muñoa Arrigain	Karmele	Ametsondoa eta gero	1994	123	Poesia
Muruaga Lejona	Ainhoa	Superbizipenaren burruka ikaragarria	1990	101	Prosa
Negeruela Izagirre	Ainhoa	Maitasun poesia	1992	147	Poesia
Oiarbide Aldasoro	Asier	Amodio gorrotagarria	1988	111	Poesia
Oiarbide Aldasoro	Asier	Premio santu hura	1988	129	Poesia
Olabarri Aldape	Iñigo	Orbaindu gabeko zauriak	1988	161	Poesia
Olaizola Gabirondo	Jurgi	Gaztelua	1996	103	Prosa
Olarra Allika	Gotzone	Poema sozialen artean amodiozkoren bat	1986	123	Poesia
Olaskoaga Bereziartua	Naiara	Ume baten bizia nire eskuetan	1994	109	Prosa
Olaskoaga Bereziartua	Naiara	Zoriona, maitasuna	1996	55	Prosa
Olazabal Elorza	Arantzazu	Garaia	1986	133	Poesia
Ormaetxea Ireta	Amaia	Familia baten beharra	1987	59	Prosa
Ormaetxea Ireta	Amaia	Iraganarekin topo egitean	1989	93	Prosa
Ormaetxea Ireta	Amaia	Maitasun gorrotatua	1989	183	Poesia
Ornoz Antxordoki	Belen	Plisti plasta	1990	167	Poesia
Otaduy Zubizarreta	Juan Pedro	Iraganetik datorren ekaitza	1994	37	Prosa
Padron Plazaola	Araiz	Denborak ez du dena sendatzen	1991	131	Poesia
Padrón Plazaola	J. Luis	Ilargi gabeko kalea	1987	121	Poesia
Padrón Plazaola	Araiz	Pago zaharraren azken arnasa	1993	155	Poesia
Paia Ruiz	Xabier	Tontoarena	1997	245	Poesia
Paia Ruiz	Xabier	Dakitenek Jakingo Balute	1998	227	Poesia
Paia Ruiz	Xabier	Lau bekatu hilezkor	1999	151	Poesia
Paia Ruiz	Alfredo	Oroitzapenak	1999	145	Poesia
Paia Ruiz	Xabier	Agur Laztana	2000	131	Poesia
Panizo Saez de Maturana	Amaia	Luis XII.ari, xake	2000	53	Prosa
Peruarena Ansa	Mikel	20 eta 12	1995	173	Poesia
Pikaza Irigoien	Nora	Zentzugabeko paktua	1986	91	Prosa
Redondo Pares	Laura	Gau hartan... iluntasunean	1989	85	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Rios Bernaola	Itziar	Amets gaiztoa	1987	71	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Hogei hilotz	1996	65	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Ilunabarreko kantu malenkoniatsua	1997	85	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Aneren Kaiera	1998	19	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Eternitatearen Memorian	1998	167	Poesia
Salinas Elosegi	Aitziber	Ibai baten esamesak	1992	113	Prosa
Salinas Elosegi	Aitziber	Mercedesdunaren seme ez zena	1993	107	Prosa
Sansinenea Aizpurua	Ainhoa	Heriotzaren oihua	1990	91	Prosa
Santiago Arizaga	Mikel	Hosto bat bailitzan	1989	17	Prosa
Sarobe Txopeitia	Leire	Beharrezkoa	1990	65	Prosa
Sarriegi Galparsoro	Aitor	Galeperrak espazioan	1991	137	Poesia
Sarriegi Galparsoro	Aitor	Horizontea	1991	143	Poesia
Sarriegi Galparsoro	Aitor	Ardi galduaren malkoak Urepeleko artzainari	1993	161	Poesia
Sarriugarte Lasarte+A16	Aingeru	Sineskeriaren egutegia	2000	99	Prosa
Sudupe Rodriguez	Maidier	Azken agurra	1995	65	Prosa
Tolosa Eizagirre	Egoitz	Gatibuari Kantua	1998	195	Poesia
Torres Renedo	Xabier	Nahitaez	1991	29	Prosa
Ugarte Zubizarreta	Larraitz	Teilen auzipean	1994	153	Poesia
Urbizu Uribe	Nagore	Itsaso amaigabe hartan	1987	79	Prosa
Urbizu Uribe	Nagore	5B: bititza beltz bat beltzen bititza	1988	71	Prosa
Urbizu Uribe	Nagore	Argi bi	1988	143	Poesia
Urbizu Uribe	Nagore	Jostailu berria	1990	47	Prosa
Uriarte Gil	Maite	Noraezean	2000	189	Poesia
Uribesalgo Urizar	Larraitz	Askatasunaren negarra	1993	67	Prosa
Urkia Garmendia	Larraitz	Errege etzana	1992	77	Prosa
Urkizu Mendiola	Jone	Addis Kiptum	1994	73	Prosa
Urkizu Mendiola	Jone	Ihesi	1995	95	Prosa
Urrestilla Urizabal	Jon	Ostiral gau bat	1992	31	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Urrutia Urteaga	Maite	Noraezean	1998	135	Prosa
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Zerutik maiteari	1992	173	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Behin heldu hintzen	1993	199	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Amodio poema bat -gehiago-	1994	131	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Argazki horizatuak	1994	159	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Abazuzien pien	1995	157	Poesia
Urzelai Izagirre	Gorka	Bizitzaren gurpilean	1990	119	Poesia
Villena Camarero	Unai	Bakardadearen itzaletan	1996	219	Poesia
Villena Camarero	Unai	Naturaren muga herdoilduak	1997	169	Poesia
Villena Camarero	Unai	Odola	1998	45	Prosa
Vives Urbiet	Alaitz	Aretoaren izkin batean	1993	17	Prosa
Yurrebaso Pikaza	Iker	Ai! Bixente, Bixente	1995	121	Prosa
Yurrebaso Pikaza	Iker	Benta ilunetan da nire gogoa	1996	29	Prosa
Zabala Basterretxea	Miren	Oroitzen al duzu?	1997	73	Prosa
Zabala Ormazabal	Idoia	Anbare Grisa	1998	85	Prosa
Zabaleta Umerez	Ester	Zaldi hegaduna	1986	43	Prosa
Zabaljauregi Markuerkiaga	Matxalen	Horixe bakarrik	1996	203	Poesia
Zabaljauregi Markuerkiaga	Matxalen	Bi bide	1997	97	Prosa
Zabalo Enparantza	Katrin Naroa	Bi egun New Yorken	1989	71	Prosa
Zorita Arratibel	Yolanda	Goizeko euri artean	1990	83	Prosa
Zuazo Corral	Nagore	Hizkuntzari zerraldorik ez	1993	35	Prosa
Zubeldia Aierbe	Estitxu	Bizi	1989	103	Prosa
Zubiate Garay-Yurrebaso	Aritz	Bariku bat	1993	77	Prosa
Zubiate Garay-Yurrebaso	Aritz	Not time for love	1994	55	Prosa
Zubillaga Zurutuza	Arrate	Alaitzen jakinmina	1989	51	Prosa
Zubiri Esnaola	Harkaitz	Begira nazazu	1995	73	Prosa
Zubizarreta Iribekampos	Ohian	Etsipenezko negarra	2000	197	Poesia
Zuloaga Martinez	Nerea	Xirularen azken notak / Ez naiz itzuliko	1987	131	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Zuloaga Martinez	Nerea	Zu zara nire bizitzaren arrazoi bakarra	1987	87	Prosa
Zumarraga Azkarate	Eriz	Gazte pentsamenduak	1987	137	Poesia
Zumarraga Azkarate	Eriz	Ezezagun maite	1990	125	Poesia



P O E S I A

XABIER PAIA

GAIZKA AMONDARAIN

AMAIA MARTIN

IRATXE ESNAOLA

UNAI BAZTARRIKA

IRATI GOIKOETXEA

ODEI ARREGI

MAITE URIARTE

OIHAN ZUBIZARRETA



EK15020296
Irakaskuntza ertainetako Urrazun Literatur Lehiaketa 2000

...Baina, eta badakit honetan literatur teorizatzaile ugari ez datorrela bat, nire ustez bigarren plano horretara iragaitea ez da nahitaezko urratsa, gure baitan sortu eta gure baitan ere gorde baitezakegu soil-soilik. Nire iritziz, azken finean, eta hortik dator aitzin solas honek hartu duen izenburua, idaztea irabazle eta galtzaileez haraindi dagoen zerbait da, lehenbiziko maila batean sortzailea bera baita abiapuntua eta helmuga. Zuek aukeratu duzuen bigarren maila batekoa izango litzateke: hots, munduratzea, urruzunotar bihurtu nahi izatea. Eta den-dena da zilegi, jakina, baita guztiz ongi-etorria ere. Nola ezagutuko genituen, osterantzean, zuon sorkuntza-lanak?...

...Komeni da, beraz, gure buruarekin zintzo jokatzeari, gure zaletasunen helburua beti ere plazerrera zuzentzea. Etorriko da ereindakoaren uzta, horixe baietz, sari baten, liburu baten edo bestelako ekintza soil, apal, isil eta pertsonalago baten itxuraz. Seguru nago zuon kasuan denetik izango duzuela, batzuek jauzi literarioa egin nahiko duzuen bitartean, bestetuek dibertitzeko edo helburu jakinik gabe idatziko duzuela. Hautaketa guztiak izango dira onak, zuok zeuok egiten badituzue...

Josu Lartategi



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEAK
ETA IKERKETA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Salneurria: 800 Ptas